

GUaiXE.net



Beltza Nafarroako II. mailako aizkora finalean



Kirolak >> 11

Bi unibertsitatetako ikertzaile San Juan Baleontziaren proiektura batu dira. Eraiki bitartean zuhaitzen biodinamika aztertuko dute.



Sakenerria >> 9

Parlamentura Babes bila



>> 3

Lizarragan San Klemente festak

Gaur hasi eta igandera bitartean luzatuko dira ospakizunak Ergoienako herrian

>> 6



Ziordin kaleak berritzen

Hasi berri diren lanek 270.000 euroko aurrekontua dute

>> 6

Saria Aralarko Mikel Donea institutuari

Ahozkotasuna lantzeko programatik jaso du saria

>> 5

Senegalgo proiektu baten aldeko azoka Irurtzunen

>> 7



Eztanda Irratia 15. urteurrena ospatzera

>> 8

Batzarrerako deia egin diete euskaltzaleei

>> 5



Garalurrek 42 ekintzaile lagundu ditu aurten

>> 7

Fernandezek zilarrezko domina kolporatu du

Abiadura Irristaketako Mundialean 200 metroko erlojupekoan bigarrena izan da iturmendierra

>> 11

Bi etxarriar Mariano Izeta bertso sariketan

Gaur, 21:30ean, Arbizuko Argibidea elkarrean beste lau bertso-larirekin ariko dira, kanporaketan

>> 15

SAKANA JARTURREN ETA MORKOTSEN BEGIEZ 20 URTEZ

ZINTA LIBURUXKA 12€

Bierriken bazkideek 10€

Egin zure erreserba: **948 564 275** bierrik fundazioa

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



efiven

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak



Planeta urdinera
Green Technology

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zeharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Rikardo

Bikain ospatu zure urtebetetzea!! Muxu handi bat. ZORIONAK!!!!

Luken

ZORIONAK Urdiango mutil politenari zure 7. urtebetetzean!! Familia guztiaren partetik. Muxu asko.



Haizea

ZORIONAK HAIZEA!! Dagoeneko 6 urte!! Txo-komarrubizko mila muxu familia guztiaren partetik. Izugarri maite zaitugu.

Iker Mintegi Claver

Gure txapeldunari, ZORIONAK!!! Gozatu egunaz. Familia osoaren partez.



Luken

ZORIONAK Luken!! Sakanako skater onenari, jarraitu orain arte bezain zintzoa izaten. Izugarri maite zaitugu!! Zure osaba-izebak, Larrea eta, bereziki, Mikelen partez. MUUUUAAAA!!!!

azaroak

14-20

Sakanak antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Irurtzun eta Arakilgo musika eskola. Azaroaren 15ean, larunbatean, 19:00etan Izurdiagako Joan Bataiatzailea elizan.

Last Prophecy eta Amatarraxa. Azaroaren 15ean, larunbatean, 23:00etan Iturmendiko Ximona gaztetxean.

Desvarietes Orquestina. Azaroaren 16an, igandean, 19:00etan Irurtzongo kultur etxean. Folk ametsetan.

Antzerkia

Superheroínas. Azaroaren 14an, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Trokolo Teatro.**

Ipuin kontalaria

Udazkeneko ipuinak. Azaroaren 14an, ostiralean, 18:30ean Ziordiko liburutegian. **Maite Franco.**

Zinema

Todas las mujeres. Azaroaren 14an, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 16an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Un viaje de 10 metros. Azaroaren 14an, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 16an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Lifi una gallina tocada del ala. Azaroaren 16an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Erakusketak

Ferietako argazki rallya. Azaroaren 23ra arte, 19:30etik 21:00etara Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Hiru keinu iraganari. Azaroaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Pintura detritus. Abenduaren 20ra arte Altsasuko Basoko Mari dendan.

Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak. Abenduaren 29ra arte, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegian.

Bertsolaritza

Tainta, Ilarregi, Artieda, Elizagoien, Plaza eta



Last Prophecy.

Karasatorre. Azaroaren 14an, ostiralean, 21:30ean Arbizuko Argibidea elkartean. **Mariano Izeta bertso sarietako kanporaketa.**

Joseba Andoni Beltza eta Eneko Lazkoz. Azaroaren 15ean, larunbatean, 15:00etan Iturmendin. **Eztanda Irratiak 15 urte.**

Mendi irteerak

Demanda. Azaroaren 16an, igandean, 6:00etan Irurtzundik, herriz herri. **Sakanako Mendizaleak.**

Txindoki. Azaroaren 16an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak taldea.**

Zalbide. Azaroaren 16an, igandean, 9:30ean Etxarri Aranazko ikastolatik. **Sakanako Ikastolen Mendi Taldea.**

Bizikleta irteerak

Mendiluzeko harrespila. Azaroaren 16an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanpinean. 60 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Tailerrak

Apainketa. Azaroaren 15ean eta 16an, larunbatean eta domekan, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta

gazte gunean.

Zer da eraso sexista bat? Hitz egin dezagun. Azaroaren 20an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxean. **Altsasuko mugimendu feminista.**

Bestelakoak

Gozamenez Gauak. Zine-foruma. Azaroaren 14an, ostiralean, 21:45ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Sakanako euskaltzaleon bilgunea. Azaroaren 15ean, larunbatean, 10:30etik 13:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean.

Bigarren eskuko azoka. Azaroaren 16an, igandean, 10:00etatik 14:00etara Irurtzongo Foru plazan. **Itxipuru.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 14an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 16an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Pentsioen Fondo ez dago Krisian. Azaroaren 18an, asteartean, 11:00etan Irurtzongo plazan. **Sasoia.**

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Amalur didaktika materialaz, institutuak
lortutako saria, unibertsitateek
zuhaitzak ikertzeko egitasmoa...

Esataria: *Eneida*

SAKANA

Hasi da Sakanako Plan Estrategikoa talde parlamentarioei azaltzeko erronda

UPN, PP eta Izquierda-Ezkerrako ordezkariak bildu ziren asteartean eta hurrengo astean PSN, Geroa Bai eta EHBildurekin biltzekoak dira

Sakanako krisi ekonomiko gogorri eta %23ko langabezi tasa baino handiagoari aurre egiteko, Sakanako Plan Estrategikoa gauzatu dute ibarreko eragileek. Planak Sakanako Udal guztien eta ibarreko erakundeen babesa lortu du.

Adostutako plana Nafarroako instituzioei ezagutaraztea erabaki da, bildutako ekintzak aurrera eramateko Nafarroako instituzioen inplikazioa ezinbestekoa delako, eta horregatik, prozesuaren sustatzailen ordezkariak batek talde parlamentari guztiak bileran eraberritu da. Mank-eko presidente Aitor Karasatorrek, Sakanako Garapen agente Iker Manterolak garapen teknikari Aintzane Iriberrik, Altsasuko alkate Garazi Urrestarazuk eta Sakantzen Sareko Joseba Garmendiak osatu dute Sakanako ordezkariak.



Garmendia, Manterola, Iriberrri, Urrestarazu eta Karasatorre Parlamentuan.

Asteartean Parlamentuan egindako lehen bileretan UPNko Coro Gainzarekin, PPko Ana Beltrarekin eta Izquierda-Ezkerrako Txema Mauleonekin bildu zen Sakanako Plan Estrategikoaren ordezkariak. "Bileran hauetan Sakanan egindako lanaren errekonozimendua jasotzeaz aparte, elkarlanerako borondatea eta laguntzeko pres-

www.sakanagaratzen.com

Sakanako Plan Estrategikoa bertan kontsultatu daiteke.

tutasuna agertu dute talde parlamentari hauetako ordezkariak" adierazi dute Sakanako ordezkarietatik. Hurrengo astean PSN, Geroa Bai eta EHBildu taldeko parlamentariak bilduko dira. "Momentuz,

Sakanako Plan Estrategikoa

Lau lan-taldetan banatuta, sei hilabetez esperientzia eta ezagutza zabaleko 51 pertsona eta 8 dinamizatzaile Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) lantzen aritu ziren. Sakanan krisi ekonomiko gogorra eta %23ko langabezi tasa baino handiago izanik, ibarreko aditu eta ari-tuez talde horrek osatutako diagnostik abiatuta gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren iraunkortasuneko inbentarioa lan-

postuak sortzea erraztuko duten etorkizunerako apustu eta ekimen zehatzak proposatu dituzte. SPEk lau esparru estrategikotan –elkaidura (lehen sektorea eta elikagaien industria), industria (industria eta enpresa zerbitzuak), energia (basogintza, energia berriztagarriak eta eraikuntza) eta turismoa (turismoaren sektorea)– 13 ardatz, 54 lan ildo eta 147 ekintza jasotzen ditu. Esparru guztietan arlo transbertsal gisa hezkuntza eta merkataritza gehitu zaie. Planak Sakanako Udal guztien babesa izan du.

balorazio ona egiten dugu. Alderdi guztien babesa lortzen saiatzen ari gara", gaineratu dute.

Bileran erronden ondoren, Nafarroako Gobernuari aurkeztuko diote Plan Estrategikoa, eta berau aurrera eramateko beharrezko diren baliabideen inguruko negoziazioa hasiko dute Lourdes Gikoetxearekin. Jakin dugunez, nego-

ziazio taldea Sakanako Garapen Agentziako administrazio kontseiluan aukeratuko da aste honetan. Plana aurrera eraman ahal izateko beharrezko baliabide ekonomikoak eskatzea da asmoa. Aurreratu dugutenez, "plana aurrera eraman ahal izateko Nafarroako Gobernuak bost urteetan 20 milioi euro jarri beharko lituzke".

Antenen egokitzapena



Dibidendo digitalaren liberazioa hasi da egokitu zaitez!!!

Urriaren 25ean kateen berko-katzea egitea eskatu zitzaizgun eta orduetik hona telebistak bersintonizatzen aritu gara frekuentzia berriak hartzeko.

Honek eragina du etxebizitzaren komunitateetan bizi diren bizilagun guztiengan, hauek baitira amplifikatzeko zentralitak dituztenak eta honen egokitzapena egin arte ezingo baita frekuentzia berriak hartu.

Urriaren 25etik abenduaren 31 arte, komunitatean bizi diren herri-tarren telebistetan, desagertuko diren frekuentziak eta geldituko direnak simulcast (batera) egoeran emititzen ari dira, egokitze proze-

su hori egin arte.

Urtarrilaren 1etik aurrera, dibidendo digitalak kaltetutako frekuentziak emititzeari utziko diote eta egokituta ez dauden eraikin guztiekin dituzte dagozkien kanalak ikusiko.

Hau guztia dela eta gomendioa Sakanan ditugun antenistekin harremanetan jartzea da, gainera esan behar dugu dirulaguntzak jasotzeko aukera ere izango dela. Bestaldekik esan behar dugu

Sakanan ikusten ditugun ETBko bi kateak modu berean jarraituko ditugula ikusten abenduaren 31era arte bederen.



Instalatzailerak

BOSTAK
TELECOMUNICACIONES S.L.
BOSTAK
TELECOMUNICACIONES S.L.
948 078 070

Electricidad LAKUNTZA Elektrizitatea
Javier Hernández Santana
LAKUNTZA ELEKTRIZITATEA
Lakuntza
649 853 448

ETXEBERRIA Elektrizitatea
ETXEBERRIA ELEKTRIZITATEA
Etxarri Aranatz
628 168 609

Ramos y Cia S.L. Elektrizitatea
RAMOS
Frontoiko zeharbidea 9 · Altsasu
948 568 725



Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

astekoa

Lobbiak gure basoetan

Negua datorkigu, gure basoei ere. Betikoa, udaberriarekin amaitzen dena, atsedendirako eta gogoetarako denbora pixka bat ematen diguna. Baina gure basoei betirako negu bat ere badatorkie. Espainiako Gobernuak arrakasta handia lortu du Bruselan: Espainia isolatua omen dago energetikoki eta beharrezkoa omen da autopsis-

ta elektriko berriak eraikitzea merkatu bateratuan parte ahal izateko.

Eta REE (Red Electrica Española) berehala esan du beraiek dutela arazoari aurre egiteko konponbidea: oso garestia den Bizkaiako Golkotik zihoan sare proiektua uztea eta beste hiru berriren eraikuntza, hauen artean Euskadi/Nafarroa/Aki-

taniako sarea. Arias Cañetek, energia komisario berriak, egingo du egin beharreko guztia beraien lagunek irabaziak izan ditzaten (gogoratzen ditugu, adibidez, Maria Dolores de Cospedalen senarrak izan zituen harremanak REEekin). Eta Europar Batasunak dirulaguntzak emango ditu gure basoak suntsitu ahal izateko

guztion diruarekin.

Aragoitik beste bi sare pasako dira. Chuntak altza du bere ahotsa proiektuen kontra. Galizian ere gauza bera, Union Fenosa Fragas de Catasoseko parajeen ehun urte pasako 2.000 zuhaitz (gaztainondoak gehienak) botako ditu 132kveko sare baten bidean daudelako.

Aurten argi indarraren pre-

zioa jada %18an igo digute. Zer ez da izango autopista guzti horiek ordaintzeko jarri behar duguna! Zuhaitzak beharrezko lobbiak izango ditugu basoetan. Eta lobbiak ez dute itzalik ematen udaran ezta berorik neguan, lobbiak odola xurgatzen dute. Hau hotza sentitzen dudana udazkeneko egun haue-

barrutik kanpora

Zementu-fabriketan erraustearen kontrako Europako Topaketa Barlettan (Italia)

Azaroaren 8an eta 9an ospatu zen topaketa hau. Bertan, zementu-fabriketan egindako errausketaren ondorioak aztertu ziren eta Europako dozena bat estatutako ordezkariak parte hartu zuten. Ekintzaz betetako bi jardunalditan, borroka honen gaur egungo egoera eta Europan ematen ari diren ekimenak, hondakinak zementu-fabriketan erraustearen ondorioz sortzen diren osa-

sun arriskuak, txosten zientifiko berriak edo errausteari aurre egiteko 0 hondakin alternatiba bezalako gaiak jorratu ziren.

3MB Plataformak ere Topaketan parte hartu zuen, bertan izan ziren Kataluniako kideek gure izenean irakurri zuten idazki baten bidez.

Zementu-fabriketan erraustearak sortzen dituen arazoak antzekoak dira: toki guztietan ematen

diren isurpenek gizakion osasunean eta ingurumenean dituen ondorioei, garapen ereduari, kontsumo arduratsuen sustapenean duen eragin negatiboari, 0 hondakin lortzeari loturiko politikak onartzeari, ... dagokionez.

Baina kataluniar kideek esaten digutenez gure Plataformaren ekarpena, bertaratu zirenen dako orain arte ezezaguna, gobernu batek, Nafarroako kasu

honetan, ezohiko legeri bat aplikatuz (UPrS) eta udalaren borondatearen eta herritarrak halako basakerietatik babesten dituen araudien gaintik pasatuz, errausketa proiektu bat inposatu izana izan da.

Agian, hainbeste gehiegikeria ikustera ohitu gaitu Nafarroako Gobernuak, ezer gutxi harrizten gaituela dagoeneko. Baina gure eta gure seme-alaben osasuna da

Sakanan jokoan duguna eta horren aurrean ez dugu inondik eta inolaz ere etsiko.



3Mugak Batera

<http://olaztinerkausketarikez.blogspot.com.es/>

hara zer dien

Alzheimerraren eguna

Irailaren 21ean Alzheimerraren eguna ospatu zen beste behin ere.

Gaitz horrek ondorio latzak ditu jendartean eta osasungintzan. Hurrengo urteetan gaiak garrantzi handia hartuko du, jendea zenbat eta gehiago bizi, orduan eta gaixo gehiago izanen direlako. Espainian, urtero, 40.000 pertsona gehiago daude Alzhei-

merrarekin. Gutxi gorabehera, 600.000 gaixok dute eritasun hori estatuan. 2050. urterako, 1,5 milioi paziente izan litezke.

Gaixotasunaren jatorria ezezaguna da oraindik. Hala ere, onuragarria da sintomak tratatzea. Dena dela, gaur egun ezin da sendatu. Alzheimerrak mendekotasun handiagoa sortzen dio gaixo-

ari, baita nahigabea ere, bai eriarri bai hura zaintzen duen familiari (osasun kaxkarragoa, gizarte jarduerak uztea, lanaren eta baliabide ekonomikoaren galera...). Horrela, inguru zabalean du eragina, Espainian 600.000 gaixo badira, eragina 3,5 milioi pertsonengan baitu, alde edo moldez. Beraz, guztion problema da Alz-

heimerra, guztiok egin behar dugua aurre, edozein dela ere gure ideologia, sinesmena edo bizilekua.

Estatuaren esku beharko luke Alzheimerraren kontrako plana, eritasuna ardatz harturik, gaixoren eta familiakoen beharrik aztertzeke, erien eta zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzearren.

Josefina Arregui Klinika Psikiatrikoaren antzeko baliabide gehiago behar dira, gaixoa bere osotasunean tratatzeko eta zaintzaileei laguntzeko eta informazioa emateko.

Josefina Arregi Klinika

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut

Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia Mauleon
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
 s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburuzordetza

ALTSASUKO IKURRINA KENTZEKO: Nafarroako Gobernuak epaitegian kentzeko eskatu zuen, baita behin behineko neurri gisa kentzea ere. Azken hori ez zioten onartu.

Orain, ordea, gobernuaren apelazio-errekurtsoa onartu dute eta epaileak Zelai kaleko ikurrina berehala kentzeko agindu du.

sakanerria >>

SAKANA

Sakanako euskaltzaleei deia

Bihar, larunbata, 10:30etik 13:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean Sakanako Euskaltzaleon Bilgunea sortzea aztertuko da. Euskaltzaleei ekarpenak eskatu dizkiete

Ibarrean euskararen normalizazioaren arloan lan egiten duten herri-eragile, erakunde eta norbanakoak gonbidatu dituzte bihar Etxarri Aranazten eginen den topaketara. Sakanako euskaltzaleak, zein bere alorrean, egunero-

ko erronkei aurre egiten ari dira. Irakaskuntza, erakundeak, kultura, aisialdia, hedabidea, gazteak... asko dira arloak. Baina biharko bilkuraren antolatzaileen iritziz, "askotan izaten dugun ustea da ez dugula arloen arteko behar bezalako komunikaziorik eta koordinaziorik, eta beharrezkoa dugula Sakanako eskualde ikuspegia indartzea".

Asmo horrekin deitu da bile-

ra, Sakanako euskalgintzak bilgune bat sortzeko eta "elkarren berri izateko, egoeraren diagnostiko bateratu bat egiteko, eta sortzen diren arazoei batera erantzuteko". Deitzailek dioteenez, Sakanako euskalgintza bilgune horretan saretzeak "Sakanako euskaltzaleon kohesioa eta batasuna indartzea ekarriko du, eta erronka berriei elkarrekin heltzea".



Sakanako euskaltzaleak Euskaraz bizi nahi dut manifestaziora deitu zutenean.


Ahokotasuna lantzeagatik Aralarko Mikel Donea institutua saritua

Irakurmena eta idazmena ahaztu gabe, gehienbat ikasleen ahokotasuna lantzeko plan batek Hezkuntza Departamentuaren aitortza jaso du ikastetxeak. 23 irakasle eta DBHko eta Batxilergoko lehen mailako 300 bat ikasleek parte hartzen dute

Hezkuntza Departamentuak Aralarko Mikel Donea Institutuan ahokotasuna lantzeko egindako lana sari batekin aitortu du. Atzo jaso zuten joan den ikasturtean egindako lanaren aitortza diren praktika onen zigilua, Blitz-Ratón de Biblioteca liburu sorta bat eta

ekimeneko irakasle sustatzaileendako diploma.

Duela bost ikasturte hasi ziren ahokotasuna lantzen institutuan. Orduan dozena erdi inguru irakasle eta 20 bat ikasle izan ziren plana abiarazi zutenak. Baina emaitzak ikusita, ikasturtez ikasturte irakasle eta ikasle gehiago batu dira. Irakasleak aktiboago bihurtzea da planaren metodologiaren funtsa Juantxu Zabala gorpuzteaz heziketako irakasleak azaldu digunez. Horretarako, ikasleek hain-



Departamentuko Iñigo Uharte, Javier Casteig eta Juantxu Zabalarekin. UTZITAKOIA

Irakasle parte-hatzaileak

Juantxu Zabala, Cristina Tolosa, Iñaki Mundiñano, Maria Flores, Nerea Balda, Jesus Garcia, Miren Gurutze Azurmendi, Arantza Morales, Eneritz Beldarrain, Iñigo Aldunate, Raul Navarro, Eneritz Etxaniz, Arantza Aguirre, Ignacio Toni, Arantza Najera, Arkaitz Errazkin, Amparo Ibarra eta M^o Fatima Asurabarrena.

bat gaietako edukiak landu eta ikasitakoak gelaren aurrean aurkeztu beharko dute. "Sari politena ikasleek aurrera egiten dutela ikustea da", esan digu Zabalak.

+www.guaixe.net

Altsasu



Herenegun langabeek Batutako esperientzia ezagutzeko aukera izan zuten.

Ekintzaile izan nahi duten langabeek informatzeko saio gehiago

Bihar, 10:00etatik 11:30era eta 11:30etik 13:00etara SNEINN II programari buruzko informazio jardunaldia izanen da Altsasuko enplegu bulegoan

Langabeei ekintzailetasuna euren aukera izan daitekeela azaltzeko helburua du SNEINN programak. Langabeek jarrera proaktibo bat hartzeko, Eginez ikasi metodologiaren bidez sentsibilizazio eta kontzientzia

hartzea lantzen dira. Programa martxan jarri ahal izateko 15 eta 20 sakandarren arteko taldea osatu nahi da. Hori lortzeko informazio saioak egiten ari dira. Biharko hirugarren informazio saioa izanen da, joan den aste-ko eta atzoko saioen ondoren.

Abendurako taldea sortu nahi da eta programa hasi aurretik, abenduan metodologia ezaguta-

razteko hainbat jardura izanen dituzte taldekideek. Programa 2015eko lehen lau hilabeteetan garatuko da. Taldea eratu eta programaren helburuak lortzen saiatuko dira.

Informazio gehiagorako

sneinnsakana@gmail.com eta 685 75 90 56 (Jon).

ZERGATIK EZETZ ESAN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

**ESKULANETAN
TARIFA FINKOA**

5€
(ZERGAZKANPO)

BALAZTA
PASTILLAK

BALAZTA
DISKOAK

PASTILLAK+ BALAZTA
DISKOAK

ALDAKETA

DENBORA KONTUAN HARTU GABE

ETA GAINERA SEGURITASUNERAKO OINARRIZKO 12 ELEMNETUEN DOAKO ERREBISIOA

CITROËN nahago du TOTAL

(*) Gurpilak, eskapeen eta fizioen, kristaletarako eskobilen, transmisiorako fuleen egoera. Direkzioaren, LHM edo LDS frenoen, refrigerazioaren eta motorren oliaren likidoen mailaren kontrola. Amortiguadoreen/esferen eta abiadura kutxaren estankotasuna. Kontrol hauek ez dute CITROËNen Mantentze Gidako errebisio prekonizatuak ordezkatzen.



www.citroen.es



2014/11/10ETIK 2014/12/31RA



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

» Ziordia

San Klementeak heldu dira!

San Klemente papa, elurra tipi tapa dio esaerak, baina badirudi ez dela beteko. Gaur hasiko dira festa, gazteen afariarekin. Bihar hurrendako jolasak eta herri afaria izanen dira. Etzi, besteak beste, adinduak omenduko dituzte.

Lizarragako San Klementeak 2014

» Azaruek 21, ostigela

21:00etan Gazte Poteoa.
22:00etan Gazte Afaye.

» Azaruek 22, launbeta

11:00etan Kalejire Amalur taldearekin.
11:30etik 13:30era Haur jolasak.
13:00etan Meza nausiye.
16:30etik 19:30era Haur jolasak.
19:30ean Txokolatada.
21:00etan Zezensuzkoa.
22:00etan Herriko afaye frontonien.

24:00etan Trikidantz.

» Azaruek 23, iyendie

14:00etan Puzgariyek hurrendako.
12:00etan Kalejire Amalur taldearekin.
13:00etan Meza nagusiye.
14:00etan Auzatie eta zaharrei omenaldiye Herriko Etxen.
17:00etan Nesken Pala Txapelketa.
Benjaminak: Maria-Olaia / Maddi-Maialen
Kimuak: Luzia-J. Atxa / Izaro-Irantzu
Haurrak: Naroa Lasa-Ane Eskala / Oihane-Irati
Gazteak: I. Lasa-Garazi / Andrea-Uxue
18:30ean Briska eta Mus Txapelketa.

» Ziordia

Lau kale berritzeko lanean

Duela bi aste hasi ziren Santesteban eraikuntza enpresako langileak Ziordian lanean. Santa Maria, Solana, Ermita auzoa eta Goiko iturriko plazako kaleak hartuko dituzte lanak. Euri urak jasotzeko sareak egiten dituzte. Aldi berean, ur beltzak jasotzen dituzten sareko hainbat puntutan arazoak dituzte eta horiek ere konpondunahi ditu Ziordiko Udalak. Gai nontzeko sareak aurreko legegintzaldian berrituzituen udalak. Aldi berean, gasa, argindar eta argiteria publikoko kableak lurpean sartu zituzten.

Egin beharrekoan egin ondoren, zorua berritzeko porlana eta galtzadarriak erabiliko dituzte. Lanak hiru hilabetetan despedi-



Lanengatik jasotako kaleetako bat.

tzea aurreikusten da. Baina hori horrela izateko eguraldiaren ezinbesteko laguntza izan behar-

ko dute langileek. Haiek despeditzean 270.000 euro jasoko du enpresak.

SAKANA

Patata operazioa gurean

Iruñeko Alegria de Iruñeko 17 kide atzo Urdiain eta Satrustegi artean ibili ziren. Urtero moduan, 52. aldiz, Patata operazioa egin zuten peña-kideek. 2.500 kilo patata, kalabazak, alubiak, pikukak, sagarrak, pixoihalak eta 315 euro jaso zituzten. Peñakideek laguntza izan zuten bilketan. Hala Uharteko Arakilgo Donibane Jubilatuko Elkarteak mila kilo patata jaso zituen eta atzo eman zien. Guztia Iruñeko Hermanitas de los Pobres kongregazioak jaso zuen.

Ezuste desatsegina ere izan zuten Alegria de Iruñekoek urdiaindarrak esan zieten hain izenean



Iturmendiarek bat egin zuten Patata Operazioarekin.

aurreko egunetan pasa zirela. Peñakideek gogora ekarri duten emai-

leek trukean kongregazioaren egutegi bat jasotzen dutela.

» Uharteko Arakil

Itxesiko lanak aurki hasiko dira

Futbol zelaiaren eta igerilekuko sarreraren arteko 190 metrotan sareak eta zoladura berrituko dira

Uharteko Arakilgo Udalak lan horiek Coyser Construcciones y Servicios SL-ri eman dizkio. Enpresak bi hilabeteko epea izanen du lanak despeditzeko. Trukean enpresak 122.685 euro jasoko ditu. Lanak aurrera eraman ahal izateko Uharteko Arakilgo Udalak Nafarroako Gobernuaren 85.012 euroko diru-laguntza jasoko du. Nafarroako Gobernuaren aholkulari jarraituz, San Bartolome erreka-ko harrizko zubia mantendu egiten du udalak. Eraistea aurreikusia zegoena, beraz, hormigoiarekin berrindartuta segituko du. Bestalde, Itxesi auzoaren goiko partean autokarabandako espazioa egokitu du udalak eta azken ukituak falta dira.

» Altsasu

Jolasak haurren heziketan duen garrantziaz jabetzeko tailerra

Azaroaren 21ean, 15:00etan, Altsasuko ludotekan. Aurretik izena eman beharra dago azaroaren 18a baino lehen ondoko telefonora deituz: 948 467 662

Askotan ahaztu egiten dugu hurrendako zeinen garrantzitsua den jolastea. Hurrek zenbat ikastenduten jolastea. Altsasuko bateragarritasunaren aldeko itunak, Oinarriko Gizarte Zerbitzuarekin eta Altsasuko Ludotekarekin batera, jolasak haurren heziketan duen garrantziaz ohartarazteko gurasoendako eta interesaduten guztiendako tailerra antolatu du. Tailerra azaroaren 21ean eskainiko da, 15:00etan, Altsasuko Kangu Ludotekan, "jolasaren eragina haurren heziketan" izenburupean. Ordu eta erdi iraungo du, dohainik da.

Errespetatua izateko autodefentsa tailerren izena ematea zabalik

Azaroaren 21ean eta 22an eskainiko da tailerra, emakumeendako, baina izena ematea azaroaren 19rako egin behar da (012)

Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna da. Altsasuko Udalak eta herriko talde feministek makina bat ekitaldi antolatu dituzte egun horren harira, "Indarkeriak hamaika aurpegi ditu eta ubeldura horietako bat baino ez da. Ezagutu eta egin planto" lelopean. Horietako bat azaroaren 21ean, Gure Etxean (17:00-20:30), eta 22an, Labaderon (10:00-14:30), gauzatuko den errespetatua izateko autodefentsa tailerra izango da. Aipatu tailerra emakumeendakoda, doan, baina aurretik izena eman behar da, azaroaren 19ra arte, 012an.

» Irurtzun



Jostailuen bigarren aukera

Haiek inaspertu eta etxeko txokobatean baztertuta zeuden jostailuei bigarren aukera eman zieten larunbatean Irurtzunen. Pasa den aste guztian Atakondoa eskola publikoan jasotako jostailu eta jokoak truke azokarako lehengai bihurtu ziren. Irurtzunge eta Arakilgo txikitxoek ikastetxean jasotako txartelarekin, asko begiratu ondoren, etxera jolas berri bat eramateko aukera izan zuten. Horretaz aparte, hainbat jostailuekin jolasteko eta jolasean aritzeko aukera izan zuten hurrek. Soberan gelditu ziren jostailuak Senegalgo umeekin lan egiten duen gobernu kanpoko erakunde bati eman zieten.

» Altsasu



Dendari Elkarteak argazki dibertigarriena saritu du

Altsasuko Dendari Elkartearen izenean (ADE) Patxi Artigas Eneka Irizarri belaunaldi berriko telefono mugikorra eman berri dio. Horixebaitzen ADEk antolatu duen azken lehiaketako saria. Urteko jardunaren berri ematen duen aldizkaria argitaratu zuen ADEk lastailean. Bezeroei dendetan banatu zieten eta aldizkarian bertan lehiaketaren berri eman zuen ADEk publikazioarekin egindako argazki dibertigarrienak eta originalenak saritu izan zuten. ADEko zuzendaritzako kideek eta Nafarroako Dendarien Federazioko marketing aditu batek osatutako epaimahaia kerabaki dute Irizarri saria ematea.

» Irañeta



Natura udaletxera

Atzo, Irañetako udaletxean, ziza eta landare erakusketa ikusteko aukera izan zen. Bezeran jaso eta sailkatu zituzten ikusgai jarri zirenak. Erakusketaz aparte zizekin egindako pin-txoak dastatzeko aukera izan zen.

TXIKITXO
haurren atropa eta leintzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 • ALTSASU

asi arreta eta orientazio psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA

- Krisi pertsonalak
- Paniko atakeak
- Estresa...

Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
948 467 354 - 669 367 422

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

» Irurtzun

Senegalgo mediku kontsultategi baten aldeko bigarren eskuko azoka

Igandean, 10:00etatik 14:00etara
Irurtzongo Foru plazan

Egoera onean dauden eta erabilzen ez diren objektuei bigarren aukera bat ematea eta haien salmentarekin elkartasun proiektu bat laguntzea. Bi helburu horiek ditu Itxipuru elkarteak elkartasun azoka antolatzen duen bakoitzean. Etzi liburu, disko, arropa, sukaldako tresneri, altzari, jostailu eta abar jarriko ditu salgai, kontsumo arduratsua sustatu asmoz.

Euro bat eta hamar euro artean izanen dira salgai gehienak. Azokako etekinak oraingoan Senegalgo mediku kontsultategi-amaetxe bat zaharberritzeraz bideratuko da. 3.000 pertsonako populazioari ematen dio zerbitzua eta kontsultategi konpontzeko 4.760 euro behar dira. Sonrieque no espoco elkarteak aurkeztu du egitasmoa.

Egitasmoa

Sally-Velingara herri txiki bat da, M'Bourtik gertu, Thiés eskualdean, Petite-Côtean. Dakar hegoaldean, 80 km-ra dago. Helburua Sally-Velingara herritarren higie eta osasun baldintzak hobetzea da, baita dagoen kontsultategi-amaetxe egoki hornitzea ere. Bi neurri horiekin herritarren osasuna hobetu eta hurren hilkortasuna murriztu nahi da. Aldi berean, gaixoei harrera egokia egin eta euren osasun-egoera hobe ulertzeko osasun-hezkuntza ona eman nahi zaie.

Senegalen osasun arreta ez da doakoa eta herritar gehienak ez dute nahikoa dirurik kontsulta, erradiografia edo botikak ordaintzeko. Beraz, antibiotikoekin edo sendaketa arrunt batekin senda daitekeen infekzio arrunt batek edo birusak heriotza eragin dezakete.



Ama umea garbitzen Senegalen. UTZITAKOIA

Gehiago

Salgaiekin batera bestelakoak ere izanen dira igandeko azokan. 10:30ean trikitalari eta pandero-joleak izanen dira. 13:00etan, berriz, Afrikako dantza eta perkusio emanaldia izanen dira. Goizean barna, bestalde, haurrendako eskulan, aurpegi margotze, trentza tailer eta beste izanen dira. Ohi bezala, jan-edanak ere izanen dira.

Egitasmoak 4 eta 21 urte bitarteko haur tabilei zuzenduta dago. Baliabiderik ez duten familiek eskola koranikoetako irakasleei, marabuei, emandako haurrak dira talibeak. Marabu batzuek euren onurarako hurren ongizateaz arduratu beharrean eskean aritzera behartzen dituzte talibeak. Horrek haurrak hainbat arriskuren aurrean jartzen ditu: gaitz fisiko (sukar horia, kolera, malaria, HIESa...) eta psikikoak, sexu erasoak, hezkuntza falta... Bate-re etorkizunik ez, beraz.

SAKANA

Garalurrek aurten 39 ekintzaile lagundu ditu

Nafarroako 2013-2015 Ekintzailetza Planaren barnean Nafarroako Gobernuaren Enplegu Zerbitzuak sustatzen duen Navarra Enprende sareko partaide-bazkidea da Cederna-Garalur. Sare horretako kideen asmoa da ekintzaileei informazioa, aholkua eta orientabidea ematea modu egoki, eraginkor eta homogeneo batez.

Utzuganen, Sakanako garapenerako gunean dagoen Sakanako Ekintzailetza Zerbitzutik aurten dagoeneko 42 pertsona pasa dira. Haietatik 3 berriki martxan jarri diren enpresetakoak eta gainontzeko 39ak ekintzaileak. Azken 39 horietatik 20 emakumezkoak dira eta 19 gizonezkoak. Aldi berean, zazpi ekintzailek dagoeneko euren egitasmoa martxan dute (4 emakumezko eta 3 gizonezko). Emakumezko gehienek dendaren bat zabaldu dute, gizonezkoek, berriz, kisugile, garraio edo zerbitzu arloko enpresak jarri

dituzte martxan.

Joan den urtean Cederna-Garalurrek Sakanako 61 ekintzaile (33 emakumezko eta 28 gizonezko) eman zien laguntza (diru-laguntze, betekizun fiskalez, lan betekizunez, sozietate motez edota ideia aztertzen). Gainera, lau ekintzailek proposatutako ekimenen bideragarritasun azterketak ere egin zituzten (3 emakumezko eta gizonezko 1ek).

Hazia ereiten

Ekintzailetza kultura bultzatzeko Altsasuko Lanbide Heziketa ikastetxearekin elkarlanean ari da Cederna-Garalur. Esaterako, hilaren 28an orain dela gutxi enpresari bihurtu diren ekintzaileak haien esperientziak kontatuko dizkiete ikasleei. Garalurreko Susana Mendinuetak esan digunez, "ikasleei gertuko esperientziak, ereduak, ezagutaraztea garrantzitsua iruditzen zaigu, zailtasu-



Cederna Garalurrek ekintzailetasunari buruz antolatutako jardunaldia.

nak-zailtasun haiek ikus dezaten ekintzailetza posiblea dela".

Bestalde, ekintzaileei laguntza emateko tailerrak ere antolatzen ditu Cederna-Garalurrek. Hilaren 3an bete behar fiskal eta kon-

tu beharren inguruko tailerren sei sakandar aritu ziren. Astelehen eta asteartean, berriz, autoenpleguari buruzko tailerrak izanen dira Irurtzunen. Bi ordutegi daude aukeran, goizez, 10:00etatik

Cederna-Garalur Sakanan

Utzuganen, Arbizuko Utzubar industrialdean, 9:00etik 14:00etara. sakana@cederna.es e-postan eta 639 900 336 eta 948 567 010 telefonoetan.

Ekintzaileendako eta enpresendako finantziario-ak

Enpresa-proiektuak finantzatzeko formulak ezagutzera emateko asmoz, Cederna-Garalurrek jardunaldia antolatu zuen atzo. Altsasuko lortia kultur gunean hainbat finantza aukeren berri jaso zuten Sakanako ekintzaileek eta enpresetako ordezkariak.

12:00etara eta, arratsalde, 17:30etik 19:30era.

» Irurtzun

Diario Co Latino zuzendari Francisco Valencia Irurtzunen

El Salvadoroko Diario Co Latino egunkariaren zuzendariak hitzaldia emango du larunbatean 20:00etan iratxon. Ondoren El Salvadorrekin elkartasun afaria izango da

El Salvadoroko egunkari garrantzitsua da Diario Co Latino. 1989tik egunkari zuzendaria den Francisco Valencia egunotan Euskal Herriandabil bisitan. Aurreko astean Altsasun hitzaldia eman zuen, eta bihar, azaroaren 15ean, Irurtzu-

nen izanen da, El Salvadorrekin Elkartasuna taldeak gonbidatua. Iratxo elkartearen hitzaldia eskainiko du, 20:00etan, *El Salvador, Latinoamerica, presente y futuro* lelopean. Ondoren, 22:00etan El Salvadorrekin elkartasun afaria antolatu dute Iratxo elkartearen (12 euro).

Valenciak Casa América Catalunyaaren Adierazpen Askatasunari Saria jaso zuen 2010ean.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

PORTUKO okindegia

Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

» Iturmendi

Eztanda, urteurrenerako
15 orduko irrati-saioa

Iturmendiko estudiantek FM 107,7an igortzen ditu uhinak Eztanda Irratiak.

Bihar, 9:00etatik 24:00etara, makina bat saio entzuteko aukera izanen da FM 107,7an

Astelehenean 15 urte beteko ditu Iturmendiko irrati libreak, Eztandak (FM107,7). Urteurrenospatzeko hura sustatzen duen Iturmendiko Gazte Asanbladak (IGA) 15 orduko irrati emanaldia prestatu du. Irratiaren ibilbidean saioa egin izan

duen hainbat lagun gonbidatu dituzte IGAKoek. Hala, bihar, garai bateko eta gaurko ahotsak entzuteko aukera izanen da Eztandan (FM 107,7). Haiensintonia hartzeko gonbitea luzatu dute IGAtik. Saioa, hala ere, larunbatean izanen diren ospakizunen zatia izanen da. IGAKo kideek sakandarrak urteurrenaren parte hartzerantz gonbidatu ditu.

Egitaraua

9:00etan Irratsaioari hasiera ematea.
9:30ean Gosaria.
11:30ean Haurrendako jokoak frontoian.
12:00etan Auzatea eta IGAREN irratsaioa ordu bata arte.
15:00etan Bertso bazkaria. J.A. Beltza eta E. Lazkoz. Aritzaga elkartearen. Ondoren, Eztandari buruzko bideo eta argazki proiektzioa.
20:00etan Auzatea.
22:00etan Afaria, Aitzkozar elkartearen.
23:00etan Kontzertuak: Last Prophecy eta Amarraxa. Aritzaga elkartearen.

*Egun guztian Aritzaga elkartearen taberna zabalduko dute.

Irratsaioa

9:00etatik 10:00etara Irratsaioari hasiera ematea eta Barrutik.
10:00etatik 11:00etara SakandaRock.
11:00etatik 12:00etara Cuando ruge la marabunta.
12:00etatik 13:00etara IGA.
13:00etatik 14:00etara Genozidio en la cibeles.
14:00etatik 15:00etara Nemesi.
15:00etatik 16:00etara Turismundo politoxikomano y los tablonos de la caballa cuadrada.
16:00etatik 17:00etara Bajo zero.
17:00etatik 18:00etara Hiru hanketako zaldiya.
18:00etatik 19:00etara Skandalo
19:00etatik 20:00etara Sabor a spizz.
20:00etatik 21:00etara Santa Marina te asesina
21:00etatik 22:00etara Vangelium
22:00etatik 23:00etara Insomnio
23:00etatik 24:00etara DJ Serguey + Irratsaioari bukaera ematea

» Lakuntza/Etxarri

Mikel Arregiren
aldeko plaka berriro
bere tokian

Guardia Civilak hil zuen lakuntzarraren omenez Etxarri dagoen monolitoko plaka kendu zuten ezezagunek Arregiren heriotzaren 35. urteurrenean. Egunean bertan plaka jarri zuten senitarteko eta lagunek

Asteartean 35 urte bete ziren Guardia Civilak Mikel Arregi HBko zinegotzi lakuntzarra Etxarri Aranatzan jarritako kontrol batean hil zuela. Gertaera oroitarazteko Jose Ramon Andeskultorearen eskulturak jarri zen Etxarri, gerora egungo tokira aldatu zutena. Haren ondoan gertaera oroitarazten zuen plaka jarri zuten, asteartean, bere heriotzaren 35. urteurrenean, desagertu zena. Plakan Arregiren argazkia, haritz baten hostoa eta testu bat zegoen: "Eguren bidean, askatasuna amets; Mikel gogoan". Herenegun jarri zuten, atzera. 2009an gauza bera gertatu zen.

» SAKANA

Bi altsasuar Araizen
lan-taldean

Maiatzeko foru hauteskundeetan EHBilduren zerrenda burua Adolfo Araiz izanen da. Aurreko ostiralean koalizioak hautagaiarekin lanean arikoden lantaldea aurkeztu zuen. Hartan Asun Fernandez de Garaialde eta Esther Korres altsasuarra daude. Talde horrek Nafarroan aldaketa politiko eta sozialaren aldeko sektore guztietan elkarrikeria bideratzeko ardura izango du eta, prozesu ireki eta parte-hartzaile baten bitartez, Nafarroak behar duen aldaketari ekiteko programaren oinarriak zehaztu beharko ditu. Bestalde, Araizek gaur, 19:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean hitzaldia emanen du.

» Olatzagutia

EHBilduko zinegotzi
bat irainengatik
zigortua

Lastaila akaberan emandako epaian Iruñeko 5. zenbakiko Instrukzio Epaitegiak EHBilduko Javier Bados zinegotzia zigortu zuen. PPko Oskar Alvarez Peon zinegotziarekiko errespeta faltagatik 135 euroko isuna eta auziaren kostuak ordaindu beharko ditu Bados. Epaiaren arabera Badosen Alvarez iraindu egin zuen. Gurutze Rodriguez alkateak azaldu digunez, "Badosena publikoan zeuden PPko ordezkarien probokazio ugari emandako erantzun bat izan zen".

» Altsasu

Jaki bilketarako
boluntarioak behar
dira

Dozena bat boluntario behar dira hileko azken asteburuan dendetan jakiak biltzeko

Nafarroako Elikagai Bankuak azaroaren 28an eta 29an jakien bilketa handia egingen du herrialde guztian. Bi egun horietan Altsasuko lau establezimenduetan egingen da bilketa: BM, Dia, Eroski Center eta Eroski City. Denda bakoitzean eguneko hiru txanda egin behar dira eta txanda bakoitzean bi pertsona behar dira. Interesa dutenek Jose Sebastian Hualde Urrea, Txan, apaizarekin harremanetan jarri beharko dute. Bilketa egunen aurretik txandak antolatzeke prestaketa bilera bat egingen da. Boluntarioek euren nortasun agiri eta telefono zenbakiak eman behar dituzte, hala haiendako asegorua egin ahal izateko.

» Jostailu trukaketa
egiteko deialdia

Azaroaren 21era bitartean utzi daitezke erabilitako jostailuak ludotekan. Azaroaren 29an egingen da merka-truke azoka, Gure Etxean

Aurreko asteburuan Irurtzun egin zuten jostailu truke azoka arrakastatsua. Irurtzuni errelebo hartuta, azaroaren 29an Altsasun egingo dute jostailuen merka-truke azoka, Gure Etxean, 10:00etatik 13:00etara. Burunda Mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuko du azoka, Altsasuko Udalaren laguntzarekin. Etxean erabili ditugun jostailuak, egoera onean daudenak, azokara eraman eta trukean beste jostailu bat hartzea. Hori da helburua. Erabilitako jostailuak azaroaren 21era arte eraman behar dira, Altsasuko Kangu ludotekara.

» Irurtzun

ITBk gazte egunaren
berri jaso du

Irurtzun Telebistak (ITB) bere 9 emanaldian Lorek aldamenen bekariorria du, Ibon. Antza bere gogokoa den bekariorria. Saio berriari ITBk Irurtzunge eta Arakilgo Gazte Asanbladak antolatutako Gazte egunaren berri zabala eskaintzen da, bazkariko jakien kata berezi batekin, antolakuntzari buruzko aparteko kezkekin eta ospakizuneko hainbat irudirekin hornituz. Irurtzundarrak munduan atalak oraingoa Iparraldera eramanen gaitu. Eta bekadunak, Ibonek, atal berriari mustuko du: bitxikeriak. Ilarben autoak erdibitzeko egindako apustuko parte-hartzaile batekin aritu da. Ohi bezala, agenda errepasatu despeditu dute saioa.

» SAKANA

Euskarak Nafarroan jauzi
kualitatiboa emateko
50.000 euro behar dira

Xaloe Telebistak euskara hutsezko emisioak hasiko ditu abenduan. Bidez atzo bertan hasi zen diru-bilketa, 409 egunetz luzatuko dena.

www.karena.eu plataformaren bidez atzo bertan hasi zen diru-bilketa, 409 egunetz luzatuko dena.

Nafarroako euskalgintzaren babes zabalarekin, tartean zen Bierrik fundazioko kudeatzaile Goizeder Anton, atzo aurkeztu zuten Iruñerriaren emitituko duen Xaloe Telebistaren aldeko diru-bilketa kanpaina. Euskara hutsezko programazioaren bidez euskal kulturari "leiho berria" irekiko zaiola azaldu dute aurkezpenean.

Iruñerriaren emititzeko lizentzia lortu eta gero, Xaloe Telebistak Baztan, Bertizarana eta Malerrekarako emititzetik metropoli foralera emititzera pasako da. Egitasmoa gauzatzeko makina bat ate jo dituztela adierazi du Joseba Igarabidek, telebistako arduradunak. Egitasmoak hasieratik ilusio handia piztu duela adierazi du Igarabidek.

50.000 euroren beharra

Xaloe Telebistak emititzen hasteko inbertsio handiari egin behar dio aurre. Garrantzitsuena seinale digitala zabaltzen duen multiplex emisorea da (etorkizunean Hamaika eta Abian telebistek erabili dezaketen). Seinalea Iruñerria guztian



Xaloe euskalgintzako makina bat ordezkariaren babesa jaso du.

zabaltzeko Elon eta Ezkaban errepikagailu bana jarri behar dira.

Eta horrek guztiak 50.000 euro balio ditu. "Ahalegin handia da zalantzarik gabe, baina inbertsio gisa hartu beharra dago, trukean euskararendako esparru zabal eta garrantzitsua irekitzea ahalbidetuko diguna". www.karena.eu bidez egingen da diru-bilketa, gaur hasi eta 40 egunetz. Edozein diru ekarpen egin daiteke, baina mugari batzuk gaitzen dutenek saria jasoko dute. Internetekin moldatzen ez denak edo txartel fisiko bat nahi duenak Iruñeko Karrikiri Euskal Dendan (Xabier karrika 4) eta Katakrak Liburudendan (Kale Nagusia, 54) ditu. Norberak erabaki dezake

zer prezioan erosi.

Diru-bilketa kanpainak Topagunaren, Tokikomen eta Udalbiltzaren laguntza du. Erakunde horietako ordezkariak aitortu dute ez dela "erronka makala". Horregatik deia egin diete: "Euskal Herriko eta mundu osoko euskaltzaleei, bakoitzak ahal duen neurriko ekarpena egin dezan. Egitasmoak aldaketa kualitatibo handia ekarriko du euskararen mundura, horregatik ziur gaude ahaleginak merezi duela". Kanpainaren bultzatzaileek argitu dute kopuru horretara iritsi ezean, egitasmoa bertan behera geratuko litzatekeela. "Aukera aparta galduko genuke hori gertatuz gero, seguru gaude ez dela geratuko".



Gozamenez Gauen segida

Gaur, 21:45ean Zine-foruma izanen da Iortia kultur gunean, Todas las mujeres filma ikusi ondoren

Aurreko ostiralean jarri zen martxan Gozamenez Gauak egitaraua. Intxostiapunta gazte guneak, gauez, zentzumen ibilbidea hartu zuen. Han izan ziren gazteak fotokol-a, ibilbidea, dastatze berotoxa eta beste izan zituzten. Azaroko aurreneko hiru ostiraletan garatuko da Gozamenez Gauak egitaraua.

Gozamenez programak gazte-en sexualitatea propio eta begirune osoz adierazi nahi du, ikuspegi positibo, plural eta aberasgarri batetik abiatuta. Altsasuko gazte-ek proposatutako ekintzan izanen dira gaurtik aurrera garatuko direnak. Gazte altsasuarrak parte hartzera gonbidatu dituzte. Sakanako Gozamenez Batzordeak antolatu du programa, Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuaren, Iruñeko Gozamenez Batzordearen eta Osasunbidearen laguntzaz.



Gazteak kalean. ARTXIBOA

Egitaraua

>> Azaroak 14, ostirala 21:45ean Zine-foruma. Todas las mujeres. Iortia kultur gunean.

>> Azaroak 21, ostirala 22:30ean Ipuin erotikoak. Kontu-Kantoi narratzailea eta margolaria. Gautxori.

23:45ean La Chula Potraren kontzertua. Arkangoa.

Film laburren lehiaketa

Bigarren antolatu da lehiaketa. Gazteek sexualitateaz hausnartu eta ideiak irudi bidez adieraztera gonbidatu dituzte. Beti ere, ikuspuntu integral, integratzaile, plural eta irekitik; aniztasunaren, zentzumenen bidezko gozamenaren, fantasien eta abarren alde, pertsonen garapen globalaren bila. Lehiaketa 12 eta 25 urte bitartekoei zuzenduta dago. Bi maila daude 12 eta 17 adin tartekoa eta 18

eta 25 urte artekoendako. Banaka eta taldeka aurkeztu daitezke lanak. Gida digitaletan daude argibideak: www.sexualidadconmuchogusto.com. Lehiaketan parte hartzeko azaroaren 28ra arte eman daiteke izena. Film-laburra martxaren 23a bitarte egin beharko da. Lehiaketara onartutako filmak apirilaren 1ean web orria ikusgai jarriko dira. Gazteen bozkek emanen dute saria bat, epaileenarekin batera maiatzaren 8an banatuko direnak.

Informazioa
www.gozamenez.com

Altsasu



Manuel Cabrero, Garazi Urrestarazu, Raul Perez, Xabier Agote, Iker Manterola eta Gustavo Vargas.

San Joan baleontzia, zuhaitzen biomekanika aztertzeko

Euskal Herriko Unibertsitatea eta Universidad de Navarra zura ikertzeko lankidetzara egitasmo bat ontzen hasi dira Albaola, Itsas Ondarearen Fundazioarekin, eta Mank-ekin batera

Baleontzia eraiki bitartean ikerlariak denboran joanean zuhaitzen garapena eta egokitzapena, haien forma ugariak, ikertuko dituzte.

Altsasun Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ingeniaritza Mekanikoko Materialak eta Teknologia ikerketa taldeko Gustavo Vargas eta Universidad de Navarrako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko Egituren Departamentuko Zuraren Katedrako zuzendari Jose Manuel Cabrero, Donostia 2016ko Raul Perez, Albaolako Xabier Agote, Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterola eta Altsasuko alkate Garazi Urrestarazu astelehenean elkartu ziren aurrenekoz.

Eraikuntzan zuraren erabilera ikertzen ari dira eta unibertsitate-

ko ikerlariak Albaolari ikerketa proiektu batean lankidetzara hitzarmena proposatu diote. "Gure aurreneko erreakzioa Mankomunitatea inplikatzera izan zen. Orain proiektuaren diseinu fasean gaude, baina badirudi Sakanak eragina izanen duela egitasmoan", argitu digu Agotek. Asmoa litzateke Albaolako olan zuraren proba leku bat egitea. Zuraren indarrak, egitura aldeetik dituen ezaugarriak eta beste ikertzeko.

Egitasmoaz

Ikerlariak proiektuaren bidez "itsasontziak erabiltzen diren bitartean dituzten eskakizun mekanikoei erantzuteko zuhaitzek dituzten egiturazko soluzioak zein diren gehiago ezagutzera" azaldu digu Vargas. EHUko irakasleak esan digunez, "bizi-iraupen eta erreprodukzio eskaerei egokitzeko bizi-dunak etengabe egokitu behar izan dute. Zuhai-

tzen moduko egitura biologikoen arrakasta bere egitura, morfologia, egokitzapena eta garapenari esker lortzen da".

Vargasek azaldu digunez, "zuhaitzek egokitze egitura estrategia ugari erabili dituzte, bere material biologikoak eta morfologia eraginkortasunez baliatzeko". Beraz, "itsasontzi tradizionalen diseinuan eta eraikuntzan zuhaitzen egitura estrategiak ikertuko ditugu. Helburua da "itsas aplikazioetan zuhaitzen aprobetxamenduen printzipioak zein diren ezagutu nahi ditugu", Vargasen esanetan. Irakaslearen iritziz, "egitasmoak Sakanako zurerako baliabideei gehienezko probetxua ateratzeko aukera izanen da. Baita baso ustiapen teknikak hobetu eta lortutako ezagutza itsasontzien diseinuarekin eta fabrikazioarekin lotutako konponbideak partekatzeko". [+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

Asteleheneetik larunbatera (gauez ere bai)

IBARRREA

- Plater konbinatuak
- Eguneko menua
- Larunbata gauez menu berezia
- Edozein ospakizunerako afariak (aldeaz aurretik hitzartuta)

IBARRREA JATETXEA

GERENTZIA BERRIA

948 468 899 · Ibarrea poligonoa · Altsasu



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Bidai mezua zorion@guaixe.net -era edo hots egin **948 564 275** telefonora.



Hainbat aukera. Galdetu 948 564 275



Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · argi@guaixe.net

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ/3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ Negozioak
LAN ESKARIA

Frantses klase partikularrak. Frantsesa nire ama hizkuntza da eta maila guztietako klaseak ematen ditut, baita zientzia eta matematika klaseak ere. Telefonoa 678 30 08 73.

Higiezinak
LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Jatetxe-taberna alokatzen da Arbizun.
Telefonoa 948 46 04 04.

Ikastaroak

AES. Enpresarako ingelera, irailean: "Ingelera elkarriketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, abenduan; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948-46 71 20. On line ikastaroak: [izen ematea http://www.ifes.es](http://www.ifes.es)

Forem Navarra – CCOO ikastaroak.
Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa

V. Gaztezulo bideo lehiaketa. Bideoek "Hi eta hire munduak" gaia izanen dute oinarri. Gutzienez minutu bat eta gehienez 3 minutuko luzera izan beharko dute. 16 urtetik gorako gazteek parte hartu dezakete. Lanak azaroaren 6a eta 16a bitartean aurkeztu daitezke. Informazio gehiago: www.gaztezulo.com

Oharrak

Elkartrukea. Ingeles mintza. Maita ertain edo goraxeagokoa baduzu eta langilea bazara -ez ikasleentzat- ingeles herdoildu hori taldean askatzeko. Aingeru 685 47 46 82.

EHE ren zozketa. Edinburgo 2 lagunendako egonaldia 348 zb txartelak eskuratu du. Zerbaki sarituaren jabea euskaltzale@euslherrianeuskaraz.org e-postara mezua bidal dezala.

CAF-ELHUYAR sariak. Hiru kategoria daude: Dibulgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizartean sorkuntza-beka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3), Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotza behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661-59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943-32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948-56 38 50 (klinika) edo 689-03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com edo amigososefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixegua txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoa zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritu edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztiak, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informazioarako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa

eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idatzeko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionali, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatan, asteartean Iruñezun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informazioarako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzeko helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zerbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxa hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa ordaindu, tratu txarrak sufrizten ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

Ezgaituen Elkarteak bazkideak eta laguntzaileak behar ditu. Sakanako Ezgaituen Elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaituek aisia behar dute. Laguntzailea izan nahi baduzu deitu 649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaituen Elkartetik.

Itzulpen zerbitzua. Sakanako Mankomunitatearen zerbitzua ibarreko udalek eta mankomunitateek, komertzioek, enpresek eta elkarteek erabili dezakete urte guztian zehar. Doakoa da. Itzuli beharrekoak jendaurrean edo agerian egon behar duen testua izan behar du. Eskariak mankomunitateko euskara zerbitzura egin behar dira (948 464 840 edo itzulpen@sakana-mank.com) Ez dira bilera edo aktak itzuliko, ezta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den ezer ere. Gehienez ere 5 orrialdeko dokumentuak itzuliko dira.

Naziotasun eskubidearen urraketak salatzeko telefonoa. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean ageri den naziotasun eskubidea urratzen jarraitzen dute frantziar edo espainiar izatera behartzen gaituztenean. Gurea ez den naziotasuna adieraztera behartzen gaituzten bakoitzean (edozein izapide administratibo edo ekonomiko egiterakoan, botoa ematerakoan, etab.) salaketa egiteko telefonoa jarri du Udalbiltzak: (0033) 559 595 648.

MENDIA

IGANDEAN ZALBIDERA IKASTOLEKIN: Sa-
kanako Ikastolen Mendi Taldeak etxeko
txikienekin batera egiteko txangoa antola-

tu du igandean Urbasako Zalbidera. Hi-
tzordua 9:30ean jarri dute Etxarriko Andra
Mari Ikastolan. Deialdia irekia da.

Irristaketa



Ioseba Fernandezek zilarrezko domina kolkoratu du

Abiadura Irristaketako Mundialetan zirkuituko 200 metroko erlojupekoan bigarrena izan da iturmendierra

Abiadura Irristaketako Mundialak jokatu ari dira Argentinan, Rosario. Bertan lehiatzen ari da Ioseba Fernandez irristalaria. Iturmendiarrak asteazkenean zilarrezko domina lortu zuen zirkuituko 200 metroko erlojupekoan. Pedro Causil izan zen txapeliduna (16,865) eta Ioseba 15 ehuneneko eskasera bigarrena sailkatu zen. 2013an ere zilarrezko domina kolkoratu zuen iturmendiarrak 200 metroko erlojupekoan, eta zilarrezkoa berritu du. Iturmendiarrak oraindik beste hainbat probatan parte hartuko du.

Areto futbola

D-Link Zaragoza du arerio gaur Magnak

Levante arerio zuzenari 3-5 irabazi ondoren, sailkapenean 7. postura igo da Irurtzongo taldea

Magna Xotak ostiralean partida oso garrantzitsua zuen Valentzian, Levante arerio zuzenaren kontra. Eta Imanol Arregiren mutilek ez zuten huts egin. Nahiz eta Levante aurreratu, irurtzundarrek markagailuari buelta eman zioten eta bukaeran 3-5 gailendu ziren, sailkapenean 7. postura igotzea ahalbideratu dioten urrezko 3 puntu poltsikoratuz. Pozik zegoen Imanol Arregi. "Garaipen justua izan da. Asko landutako partida izan da, eta defentsa lan izugarria egin dugu" azaldu zuen. Sailkapen orokorrean Inter Movistar da liderra (23 puntu). Levante-ren kontrako garaipenari esker, Magna 7. postura igo da (13 puntu). Gaur, ostiralean, 7 punturekin sailkapenean 14. a den D-Link Zaragoza taldea hartuko du Magnak Iruñeko Anaitasuna Pabilioian, 20:30ean. Ea beste garaipen bat etortzen den.

Pilota

Ezkurdiak Olaizola aurkari

Lau t'erdiko final erdietara sailkatzeko ez du aukerarik arbiuarrak, baina itxurarik onenarekin despeditu nahiko du bere jarduna.

Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkako 3. Jardunaldia

Bengoetxea VI.a 22 - Mikel Olaetxea 9

Xala - Retegi Bi (ostiralean, 22:00etan, Oñatin. ETB1)

Irujo - Saralegi (bertan behera. Saralegi ez baitu jokatu)

Ezkurdia - Olaizola II.a (igandean, 17:00etan, Donostiako Atanon. ETB1)

Aimar Olaizolaren kontra ariko da Joseba Ezkurdia Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkako 3. eta azken jardunaldian. Aurreko bi jardunaldiak galtzetik dator arbiuarrak, eta nahiz eta finalerdietara pasatzeko aukerarik ez izan, ahalik eta itxura onena eman nahi du, txapelketa garaipenarekin despeditzea handia bailitzateke. Aldiz, Olaizolak finalerdietara sailkatzea du jokoan eta irabaztera aterako da. Bera da faborito nagusia, baina ea Ezkurdia sorpresa ematen duen.

Lau t'erdiko hiru partida asteburu honetara atzeratu dira. Saralegi ezker eskuko hatz luzeko puntan haustura zuelako, bera eta Irujoen kontrako partida atzeratu



Joseba Ezkurdia eta Aimar Olaizola, aurretik jokatuako partida batean. UTZITAKOIA

zuten. Enpresek Aimar Olaizolaren eta Joseba Ezkurdiaen partida ere atzeratzea erabaki zuten eta Xalaren eta Retegi Biren artekoa ere atzeratu egin zen.

Ezkurdia, aukerarik gabe

Aurreko astean, A multzoan, Bengoetxeak 22-9 irabazi zion Olaetxeari eta leitzarria lau t'erdiko final erdietara sailkatu da. Joseba Ezkurdia Aimar Olaizolari irabazten badio sailkatuko litzateke Mikel Olaetxea finalerdietarako. Aimar Olaizolak Joseba Ezkurdiaen kontra irabaztearekin lortuko luke finalerdietan egotea. Eta Joseba Ezkurdia aukerarik gabe geratu da. Finalerdietara sailkatzeko arbiuarrak Olaizolaren kontra 16 tan-

toke aldearekin irabazi beharko luke eta Bengoetxeak Olaetxearen kontra galdu beharko luke, baina Bengoetxeak Olaetxeari irabazi zionez, ez dago ezer egiterik.

B multzoan Saralegi erabaki du ez duela Irujoen kontrako partida jokatu, ezker hatzean duen haustura ez zaiolako sendatu. Horregatik, Irujo zuzenean sailkatu da finalerdietarako. Finalerdietara sailkatuko den beste pilotaria nor izango den jakitea falta da, Saralegi edo Xala, Retegi Bi aukerarik gabe geratu baita. Saralegi finalerdietarako sailkatuko da Retegi Bik Xalari irabazten badio. Aldiz, Xala finalerdietarako sailkatuko da Julen Retegiren kontra irabazten badu.

Aizkora



Goizeder Beltzak txapela jokoan

Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketaren finala jokatu da gaur, ostiralean, Donezteben, 17:30ean

Doneztebeko eskoletako frontoian jokatu da Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako final handia. 5 aizkolarik dute jokoan txapela: Iker Vicentek (Otsagi), Mieltxo Mindegia (Zubieta), Aitor Senosiainek (Olague), Asier Pellejerok (Areso) eta Goizeder Beltzak (Etxarri Aranatz). Bakoitzak bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbikobaterdibitu beharkoditu. Etxarriarrak txapela janzterik duen.

Pilota

Bakaikoak Redin aurkari Nafarroako Lau t'erdian

Asteazkenean Guillermo Mazo Memorialeko Nafarroako jubenilen lau t'erdiko final zortzirenetako partidak jokatu ziren. Joanes Bakaikoak 18-3 irabazi zion Zugarraldeko Eskirozi. Asteazkenean, azaroaren 19an, txapelketako final laurdenak erabakidira Lekunberrin, eta Errekata aldean dabilen etxarriarrak Oberena-ko Redin izango du aurkari.



Pilotariak

LH3: Oier Mitxelena eta Patxi Azpeitia (zuzenean finalera).

LH4: Aimar Gracia, Aimar Bengoetxea, Hegoi Lakuntza, Iker Agudelo eta Oier Gartzia.

LH5: Aritz Sevilla, Ane Ojer, Jon Navarro, Oihan Ginea, Irati Lumbreras, Ander Goikoetxea, Aimar Lezea, Arkaitz Agirretxe, Lander Peral, Markel Arakama, Asier Sais, Ekiñe Fernandez, Olatz Galarza, Aritz San Roman, Amaur Zubiria eta Amets Borreguero.

LH6: Unai Irigoien, Aritz Ulaiar, Angel Vergara, Oier Gastesi, Aitor Ovejero, Ekhi Olabide, Inhar Olabide, Hodei Larrion, Jokin Senar eta Jon Plissonneau.

DBH1: Aimar Garcia, Izadi Reparaz, Ioritz Agirretxe, Oier Berastegi, Txomin Rubio eta Patxi Arakama.

DBH2: Urko Gartzia, Peru Galarza, Haritz Goikoetxea eta Beñat Aldasoro.

DBH4: Iñaki Bengoetxea, Gorka Ansa, Manex Goikoetxea.



Duela hiruzpalau urte txapelketako finalistak izan zirenak. ARTXIBOIA

Iñigo Aritzako XI. Pilota Txapelketa abian da

Ikastolako 44 pilotari lehiatuko dira, 7 mailatan

Pilota sustatzeko duen konpromisoari eutsiz, XI. Iñigo Aritzako Ikastolako Pilota Txapelketa antolatuko du, beste behin, izen bereko ikastolak. Lehen Hezkuntzako 3. mai-

latik hasita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara bitartean, guztira 44 ikaslek hartuko dute parte aipatu txapelketan, 7 mailatan. Horietatik 6 neskak dira. Partidak larunbatetan jokatu dira Iñigo Aritzako ikastolako frontoian,

1. jardunaldia

Larunbatean, 16:30ean, Iñigo Aritzako frontoian

LH4: Aimar Gracia - Hegoi Lakuntza

LH5: Jon Navarro - Asier Solis; Aritz Sevilla - Arkaitz Agirretxe; Amaur Zubiria - Ane Ojer; Lander Peral - Oihan Ginea; Ander Goikoetxea - Koldo Mentxaka

LH6: Oier Gastesi - Aritz Ulaiar; Angel Vergara - Jon Plissonneau

DBH1: Oier Berastegi - Joritz Agirretxe

DBH2: Urko Gartzia - Peru Galarza

DBH3: Manex Goikoetxea - Iñaki Goikoetxea

16:30etik aurrera. Bihar hasiko da txapelketa eta final handiak Gabonak baino lehen jokatu dira.

LH3 mailan soilik bi pilotari daudenez, zuzenean pasako dira finalera. Gainontzekoek ligaxka jokatuko beharko dute.

Atletismoa

96 sakandar 50. Behobia-Donostian

Errekorrak gaintuz, 26.427 korrikalarik osatu zituzten Behobia eta Donostiako 20 kilometroak, 96 sakandarrek tartean

Urtetik urtera errekorrak apurten ditu Behobia-Donostia herri lasterketa entzutetsuak. Eta aurtengo 50. edizioa ez zen gutxiagorako izan. Begira, bestela, ondoko zenbaki potoloak. Urteurren berezi honetan parte hartu zuten 30.700 korrikalarien artean 26.427 korrikalarik lortu zuten proba guztia despiditza, 2.341 nafar tartean. Sakandarrei dagokienez, 96k lortu zuten proba osatzea, 20 kilometroak betetzen zituzten zaleen animo oihuak lagun zituztela.

Lanzaroteke Jose Carlos Hernandez (1:01:37) eta Vanesa Veiga galiziarra (1:09:58) izan ziren probakogaraileak. Irristalarien artean Alberto Aleman (43:27) eta Saray Narvaez (45:33) izan ziren azkarrenak. Gutxituetan, Yannick Graet gailendu zen handbikean (39:51), Alberto Baptista gurgildun aulkian (1:01:30), Alberto Suarez B1 ikusmen urritasuna dutenen artean (1:06:43), Alberto Suarez B2 ikusmen urritasuna dutenen artean (1:06:43), Jose Luis Bustingorri korrikalari ezgaituetan (1:18:26) eta Serafin Zubiri irriskaketan (1:02:18). Garaileak beraiek, baina irabazleak proban parte hartu zuten korrikalari guztiak, handia baita Behobia-Donostia osatzea; nahikoa saria. Proba osatuta, Donostiako paraje bikainean atsedean hartzeak ez du preziorik, giroa primerakoa baita. Orduan komentatzen dira probako txutxu-mutxuak eta anekdota guztiak, bakoitzak baitu berea.

Helmugara iritsiziren 96 sakandarren artean Iñaki Martiarena



26.427 korrikalarik lortu zuten proba despiditza.



Sakandarrak Behobia-Donostian.

uhartearra izan zen azkarrena (271.a, 1:14:30). Emakume sakandar azkarrena Izaskun Beunza olaztiarra izan zen (4.355.a, 1:29:24).

Korrikalari sakandarren parte-hartzea mantendu egin da. Aurreko urtean 97 korrikalarik osatu zuten proba, eta 96k aurten.

Sakandarrak 50. Behobia-Donostian

Gizonak

271.	Iñaki Martiarena (Uhar)	1:14:30
350.	Aritz Pellejero (Lak)	1:15:25
385.	Juan Luis Maiza (Etx)	1:15:51
408.	Fco. Javier Gomez (Alts)	1:16:03
463.	Aritz Ganboa (Arrua)	1:16:30
484.	Xabier Zabalza (Arb)	1:16:50
562.	Jose Javier Maiza (Etx)	1:17:28
666.	Egoitz Carrion (Irur)	1:18:16
698.	Mikel Satrustegi (Arrua)	1:18:26
884.	Andoni Azanza (Alts)	1:19:27
920.	Alatz Agirre (Arb)	1:19:37
969.	Iker Flores (Alts)	1:19:49
1.247.	Kaxi Estarriaga (Etx)	1:21:17
1.274.	Francisco Araña (Arb)	1:21:27
1.322.	Adur Senar (Lak)	1:21:43
1.372.	Xabier Ganboa (Arrua)	1:21:58
1.448.	Juan Carlos Gomez (Alts)	1:22:19
1.790.	Angel Arrieta (Uhar)	1:23:30
1.844.	Iñaki Azkona (Irur)	1:23:38
1.896.	Gorka Arratibel (Etx)	1:23:46
1.905.	Carlos Manero (Alts)	1:23:48
1.917.	Juantxo Azurmendi (Alts)	1:23:51
2.030.	J. Carlos Villalobos (Alts)	1:24:09
2.153.	Mikel Goikoetxea (Alts)	1:24:26
2.366.	Martin Somocurcio (Alts)	1:24:59
2.391.	J. Javier Beregaña (Uhar)	1:25:04
3.182.	Gorka Perianez (Alts)	1:27:12
3.254.	Santi Agirre (Itur)	1:27:20
4.295.	Xabier Aierdi (Alts)	1:29:19
4.346.	Iraitz Senar (Lak)	1:29:24
4.415.	Pedro J. Rodriguez (Irañeta)	1:29:29
4.664.	Imanol Jaka (Etx)	1:29:56
4.716.	Aritz Etxeberria (Alts)	1:30:01
5.085.	David Oroz (Urd)	1:30:42
5.457.	Juan Pedro Ariz (Bak)	1:31:22
5.692.	Ignacio Arratibel (Alts)	1:31:48
5.695.	Jon Arellano (Alts)	1:31:48
6.341.	Fco. Jose Juango (Irur)	1:32:53
6.349.	Juanjo Armendariz (Irañeta)	1:32:54
6.621.	Iñaki Otxoa de Eribe (Alts)	1:33:22
6.786.	Eduardo Zuñiga (Irur)	1:33:40
7.064.	Ruben Cantero (Alts)	1:34:05
7.134.	Peio Larraza (Alts)	1:34:15
7.230.	Aingeru Azazeta (Alts)	1:34:24
7.315.	Iban Verdugo (Etx)	1:34:32
8.004.	Angel Tajuelo (Alts)	1:35:32
8.134.	Imanol Guerrero (Alts)	1:35:42
9.700.	Alberto Agirre (Alts)	1:37:58
10.747.	Francisco Mata (Irur)	1:39:23
10.923.	Asier Palacios (Alts)	1:39:37
11.113.	Jose Reyes Palacios (Alts)	1:39:49
11.906.	Alberto del Rio (Alts)	1:40:56
12.783.	Jose Luis Rubio (Alts)	1:42:14
13.369.	Iñigo Maiza (Etx)	1:43:04
13.637.	David Mutiloa (Irur)	1:43:28
16.314.	Mikel Manero (Alts)	1:47:27
16.606.	Jose Ignazio Reparaz (Arb)	1:47:52
16.624.	Jesus Arzoz (Irur)	1:47:54
16.782.	Egoi Martinez de Esteban (Etx)	1:48:09
17.019.	Migel Chamorro (Alts)	1:48:31
17.452.	Manuel Lanz (Itur)	1:49:12
18.261.	Victor Isturiz (Irur)	1:50:36
18.911.	Koldo Isturiz (Irur)	1:51:50
20.313.	Jose M. Mercero (Unanu)	1:54:28
22.055.	Iñaki Etxaiz (Alts)	1:58:09
22.429.	Jose Luis Mateos (Alts)	1:59:03
23.769.	Iñaki Mauleon (Etx)	2:03:30
25.490.	Aitor Mozo (Unanu)	2:13:56
25.751.	Mikel Azkargorta (Olazti)	2:17:39

Emakumeak

4.355.	Izaskun Beunza (Olazti)	1:29:24
7.226.	Maitane Txueka (Arb)	1:34:24
7.617.	Erkuden San Martin (Etx)	1:34:57
7.841.	Izarne Garmendia (Etx)	1:35:16
7.919.	Jone Pelaez (Alts)	1:35:24
8.401.	Maite Zabaleta (Etx)	1:36:06
10.804.	Ainara Martin (Arrua)	1:39:27
11.003.	Marian Ijuria (Arb)	1:39:42
11.672.	Mari Gwen Davies (Urd)	1:40:36
12.849.	Maria Goikoetxea (Etx)	1:42:18
12.886.	Carmen Bakaikoa (Uhar)	1:42:21
16.784.	Rakel Sanchez (Etx)	1:48:09
18.380.	Saray Garasa (Olazti)	1:50:49
19.608.	Marisa Maiza (Etx)	1:53:07
19.697.	Haizea Ramirez de Alda (Alts)	1:53:17
19.788.	Isabel Pozueta (Alts)	1:53:26
20.771.	Ixa San Martin (Etx)	1:55:27
22.054.	Aitziber San Roman (Alts)	1:58:09
22.062.	Igone Moreno (Etx)	1:58:10
22.260.	Belen Mendoza (Alts)	1:58:37
22.376.	Marian Mendoza (Etx)	1:58:56
22.453.	Nerea Berastegi (Arb)	1:59:06
23.154.	Eduarne Razkin (Etx)	2:01:20
23.767.	Margari Zabala (Etx)	2:03:30
25.370.	Maria Goena (Arb)	2:12:29
25.752.	Ane Lizarraga (Arb)	2:17:40
25.806.	Belen Marin (Alts)	2:18:29

*Oharra: Gerta daiteke sakandarren batek beste persona baten dortsalarekin korrika egitea eta horregatik bere izena ez agertzea.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

9. JARDUNALDIA
MUTILVERA B 2 - LAGUN ARTEA 1
 Davilak Lagun Artea aurreratu zuen baina 2. zatian berdintzea lortu zuen Mutilverak. Tamalez, Mutilverak Lagunen atea bigarrenez zulatu zuen eta 3 puntu galdu zituzten lakuntzarrek.

Sailkapena >>

1.	Cantolagua	21 p
9.	Lagun Artea	9 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - CANTOLAGUA
 (Igandean, 15:30ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

10. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 8 - BETI KOZKOR 1

AURRERA 2 - ALTSASU 2

Etxarri liderrak futbol lezio ederra eman zion Lekunberriko Beti Kozkorri. Asierrek Etxarri aurreratu zuen, baina Beti Kozkorrek berdindu zuen. Xabatek (2), Mikelek, urrestarazuk eta Ruedak (3) sartutako golei esker, 8-1 gailendu zen liderra. Bestalde, Leitzan, Aurrerak eta Altsasuk bina berdindu zuten. Altsasuk ongi eutsi zien leitzarren erasoeti eta Iñakik Altsasu aurreratu zuen. Aurrerak berdindu zuen, baina penalti bati esker bigarrena sartu zuen Altsasuk. Tamalez, bina berdintzea lortu zuten leitzarrek.

Sailkapena >>

1.	Etxarri Aranatz	22 p
9.	Altsasu	15 p

Asteburuko jardunaldia

HUARTE B - ETXARRI ARANATZ

(Larunbatean, 18:30ean, Uhartte Iruñean)

ALTSASU - BURLADES

(Igandean, 16:00etan, Altsasun)

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

8. JARDUNALDIA

BAR POUKAS 0 - EGARRRETA 0

APOLO - ZALDUA (Atzeratuta)

Sailkapena >>

1.	Bar Poukas	19 p
2.	Egarrreta	17 p
7.	Zaldua	6 p

Asteburuko jardunaldia

EGIARRETA - APOLO

ZALDUA - AGERI

Futbola



4. jardunaldia jokoan Kimuen Futbol 8 Topaketetan

Mank-ek antolatutako Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketetako 4. jardunaldia jokatu da igandean Altsasuko Dantzalekun. 10 talde lehiatzen ari dira txapelketa moduan jokatzen den topaketan.

4. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

10:30ean Urdiain - Sutegi

11:30ean Dantzaleku - Tipi Tapa

11:30ean Arbizu - Txartel

12:30ean Kaixo - Lagun Artea

12:30ean Sayas - Mediolanum

Areto futbola

Bunker lider Futsalsakanan



Bunker taldea da Futsalsakana Txapelketako lider berria.

2. jardunaldiko emaitzak:

Racing San Migel 5 - Bunker 7
 Auzomotojorik 4 - Arbizu harrobia 6
 Hijos de ruta 3 - Arbizu KT 7
 Back Street Boys 3 - Iturmendi 1

Asteburuan 2. Futsalsakana Areto Futbol Txapelketako 2. jardunaldia hartu zuen Uhartte Arakilgo frontoiak. Txapelketa estua izan go dela erakutsi zuten jokatutako

partidek. Racing San Migel liderrak Bunkerren kontra jokatu zuen eta altsasuarrak gailendu zitzaizen uhartearrei, 5-7. Irabazteaz aparte, txapelketako lidergoa kendu zion Bunkerrek Racing San Migeli. Gainontzeko partidetan ere golak ez ziren falta izan. Auzomotojorik taldeari 4-6 irabazi zion Arbizu harrobia eta Hijos de rutari 3-7 gailendu zitzaion Arbizu. Buka-

3. jardunaldia

Uhartte Arakilgo frontoian Ostiralean

20:00etan: Arbizu K.T. - Auzomotojorik

21:00etan: Arbizu harrobia - Racing San Migel

Larunbatean

15:00etan: Bunker - Iturmendi

16:00etan: Hijos de ruta - Back Street Boys

tzeko, Back Street Boys taldeak 3-1 hartu zuen menpean Iturmendi.

Sailkapenean 6 puntu ditu Bunker liderrak, Arbizu bigarrenarekin berdinduta. Racing San Migel, Back Street Boys, Arbizu harrobia eta Hijos de rutak hiruna puntu dituzte. Iturmendik eta Auzomotojorik, aldiz, ez dute punturik biltzea lortu. Asteburuan 3. jardunaldia dago jokoan.

Pala

Nesken pala txapelketa San Klementeetan

Lizarragan, igandean, 17:00etan

Lizarragako San Klemente festek emakumeen pala sustatuko dute beste behin. Igande arratsalderako lau pilota partida antolatu dituzte, benjaminen, kimuen, haurren eta gazteen mailakoak. Sakanako emakume palista bikainak lanean ikusteko aukera eskainiko dute Lizarragako San Klementeek.

Nesken Pala Txapelketa

Igandean, 17:00etan, Lizarragan: Benjaminak: Maria-Olaia / Madidi-Maialen

Kimuak: Luzia-J.Atxa / Izaro-Irantzu

Haurrak: Naroa Lasa-Ane Eskala / Oihane-Irati

Gazteak: I. Lasa-Garazi / Andrea-Uxue

Mendi lasterketak

I. Tresvisoko Lasterketa Bertikala Berazarendako



Jose Luis Beraza podiumaren gorenean. FACEBOOK

Picos de Europako proban azkarrena izan zen uhartearra (41:56)

Picos de Europako paraje zoragarrietan igandean lehenengoz antolatu zuten I. Tresvisoko Lasterketa Bertikala. Urdonetik abiatuta Tresvisora igo behar ziren korrikalariak, 6 km-ko proba, 900 metroko desnibel positiboarekin. Probakronome-

tratua zen. Jose Luis Beraza uhartearrak lan bikaina egin zuen eta proba osatu zuten 73 parte-hartzaileen artean erlojua azkarren gelditu zuen (41:56). Emakumezkoetan Gabriela Sanchez gailendu zen (49:02). Ohiko trofeoaz aparte, bertako gazta jaso zuten opari. Zorionik beroenak uhartearrari!

Motoziklismoa



Mariñelarena Chesten

Motoziklismo Mundialeko azken proban Tech3 taldea agurtu zuen

Asteburuan 2014ko Munduko Motoziklismo Mundialeko azken proba jokatu zen, Valentziako Chesteko Ricardo Tormo zirkuituan. Alex Mariñelarena Valentziako zirkuitura hurbildu zen, taldekideak agurtzeko. "Nahiko nuke Moto2ko Mundialean atzera ere parte hartzeko aukera izatea, baina lehendabiziko gauza istripuaz guztiz osatzea da, eta 2015eko hasieran nire pilotu

errendimendua zein den ikustea" adierazi du irurtzundarrak sare sozialetan. Tech 3 eta Targobank bere talde ohie onena opa zien.

Gaztetasunaren balioaren saria Mariñelarenendako

Nafarroako Gobernuak 2014 Gaztetasun Sariak banatuko ditu azaroaren 28an. Alex Mariñelarenak Gaztetasunaren balioaren saria jasoko du, "ezbeharren aurreangainditze-ko izan duen jarreragatik".

Txirrindularitza

Rural Kutxa-Seguros RGA taldearen lehen kontzentrazioa

Tuteran bildu dira talde profesionalen 19 txirrindulariak eta talde amateurren 24 txirrindulariak

2015 denboraldia prestatzeko lehen kontzentrazioa egin du Sakanatik sortutako Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesional kontinentalak. Beraiekin batera kontzentrazioan izan dira ere talde afizionatuko txirrindulariak. Asteburuan Tuteran bildu dira, Bed4U hotelean. Helburua bi plantillen arteko lotura sustatzea izan da, taldeen funtzionamendua ezagutzea eta taldeak lan egingo duen materiala probatzea.

Profesionalean 19 txirrindulari

Talde profesionalak 19 txirrindulari ditu. Aurreko urtetik 12 txirrindulari jarraitzen dute: Javier Aramendia, Amets Txurruka, Pello Bilbao, Omar Fraile, David Arroyo, Lluís Mas, Francesco Lasca, Fabricio Ferrari, Antonio Molina, Fernando Grijalba, Angel Madrazo eta Heiner Parra. 7 txirrindulari berriak talde amateurretik igo den Migel Angel Benito, Carlos Barbero, Hugh Carthy, Eduard Prades, Ricardo Vilela, Sergio Pardilla eta José González dira. "Plantilla orekatua dugu, alor guztietarako. Eguneroz eta zailago dago irabaztea, oso gutxi irabazten dute, baina garaipenak iristeko lan egingo dugu" adierazi zuen taldeko entrenatzaile Eugenio Goikoetxeak.

Afizionatuak Alberto Mazkiaranen aginduetara

Rural Kutxa talde amateur sakan-darrak 24 txirrindulari izanen ditu



Talde profesional kontinentalak argazkia atera zuen. RURAL KUTXA

Jonathan Lastra (Bizkaia), Jose Maria Rodriguez (Sevilla), Josu Zabala (Nafarroa), Manuel Sola (Granada), Migel Indurain (Nafarroa), Odei Juango (Lakuntza), Salvador Martinez (Salvador), Victor Etxeberria (Nafarroa), Margos Altur (Valentzia) eta Daniel Lopez (A Coruña).

Lakuntzar bat

24 txirrindulariak: David Seage (A Coruña), Jacobo Ucha (Pontevedra), Alejandro Martinez (Murcia), Asier Unanue (Gipuzkoa), Carlos Jimenez (Ciudad Real), Cristian Cuervo (Colombia), Cristian Rodriguez (Almeria), Daniel Lopez (A Coruña), David Civera (Valencia), Erlend Sor (Norvegia), Hector Saez (Albacete), Iker Azkarate (Gipuzkoa), Jaime Roson (Zamora), Jesus Alberto Rubio (Gaztela-Mantxa),

Jonathan Lastra (Bizkaia), Jose Maria Rodriguez (Sevilla), Josu Zabala (Nafarroa), Manuel Sola (Granada), Migel Indurain (Nafarroa), Odei Juango (Lakuntza), Salvador Martinez (Salvador), Victor Etxeberria (Nafarroa), Margos Altur (Valentzia) eta Daniel Lopez (A Coruña).



Mendia



Emakumeak Euskal Herriko Erdigunera

Iruñeko Txoko Feministak antolatuta, 18 emakumek egin zuten mendia martxa

Iruñeko Txoko Feministak Euskal Herriko erdigunera joateko Mendi Martxa Feminista antolatu zuen larunbatean. 18 emakumek erantzun zioten deialdiari eta Beriainen dagoen Euskal Herriko erdiguneraino txangoa egin zuten. Ondoren bapo bazkaltera bildu ziren Irañetako elkartean.

La Demandara Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak mendia ibilbidea antolatu du azaroaren 16rako, Errioxako La Demandara mendizerrara. Autobusa goizeko 6:00etan abiatuko da Irurtzundik, herriz herri Sakanako mendizaleak hartzeko. Izena ematea zabalik dago azaroaren 13ra arte, ohiko tokietan edo herrietako mendi arduradunei esanez. Bestela, 639 11 7631 telefonora hots eginez.



PETRIATI ANTZEZLE: Lastailaren azken egunean, Oñatin, Bernat Alberdik zuzendutako "Euskara, añubea eta eguzkibegixa" ikuskizuna mustu zuten. Ikuskizuna

ontzen 60 pertsona aritu ziren, tartean Hizkuntza Eskubideen Behatokiko buru Garbiñe Petriati arbizuarra.

Umoretik **genero ezberdintasunaren kontra**



Gaur, 22:00an, Superheroínas Etxarri Aranazko kultur etxean

Trokolo Teatrok umore eta xamurtasun dosiak zabalduko ditu gaur Etxarri Aranazko genero ezberdintasunaren kontra egiteko. Ikuspegi baikorra eta, aldi berean, kritikoa eman nahi dute, errespetutik. Hala, protagonistak Mugarik Gabeko Superheroinen Elkarteko hiru ikertzaile dira. Lur planetatik berri larriak iristen ari dira haien egoitzara eta Lurrera ikertzaile talde bat bidaltzea erabaki dute, egoera horren sorrera, arrazoak eta ondorioak azter ditzaten.

Hautagaien curriculumak aztertu ondoren, Lurrerako ikerketa espedizio garrantzitsurako Calendula Oficianalis, Pizpireta Reta eta Txipuka Rodriguez aukeratu dituzte. Ikerketa egin ondoren, Etxarri Aranaztera iritsiko dira euren esperientzien berri emateko.

Fitxa

Zuzendaria eta gidoa: Isabel Aisa.

Aktoreak: Aintzane Baleztena, Sabiñe Ahechu eta Isabel Aisa.

Madariagak liburua aurkeztuko du gaur

XIX. Jagon Jardunaldiaren barruan Juan Madariaga Orbeak Euskara eta euskal gizartea XVII. eta XVIII. mendeetan liburua aurkeztuko du, gaur 11:30ean

Sustapen batzordearen ekimenez, XIX. Jagon Jardunaldiak egingen ditu Euskaltzaindiak Donostian, *Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan* izenburupean. Jardunaldiaren xedea da parte-hartzaileen artean "hiriburuetan euskarak duen errealitatearen ingurungoeta sustatzea, bide eta baliabide egoiak irekitzen eta asmatzen joateko asmoarekin". Jardunaldi horretan Egiarretako Juan Madariaga Orbeak *Euskara eta euskal gizartea XVII. eta XVIII. mendeetan* liburua aurkeztuko du.

Argazki rallyak baditu sarituak

Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak azaroaren 23ra arte, 19:30etik 21:00etara, Gure Etxean daude ikusgai

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak 29. ferietako argazki rallyko sariak banatu ditu. Helduetan Mercedes Pascual (Iruña) izan zen irabazlea. Bigarrena Carlos Cos (Soraluze) izan zen. Cosendako izan zen argazki onenaren saria. Podiuma Iñaki Etxenagusia (Azpeitia) osatu zuen. Haurretan sarituak honakoak izan ziren: Josune Imaz (Olatzagutia), Saioa Hernandez eta Jone Grados. Andres Bengoetxeak mendi taldeko kide baten bilduma onenaren saria eskuratu zuen.

Cabaretaren doinuak



Igandean, 19:00etan Irurtzongo kultur etxean Desvarietes Orquestinak emanen dituenak

Folk ametsetan musika zikloa despeditzeko, etzi Desvarietes Orquestinalek *Cosmopolitan Cabaret* ikuskizuna ekarriko du. Belle Epoque eta 20. hamarkadako musika alaia, komikoa eta seduktorea ekarriko dute, ekonomiak ondo jo zuean gizarteari dibertitzeko eta baikortasuna mantentzeko balio izan zion musika.

Laukoteak Europa eta Amerikako kabaretaren barnako bidaia proposatuko du, alemaniar kabareteko klezmerretik abiatu, kuplea, swinga, fox-trot, txarleston, balada, ragtime, dixie, tangoa eta

AEBko musik-hallera arte. Orduko divei eta konposatzaileei omenaldia egingen diete. Izaera kosmopolitako kantua eskainiko ditu Desvarietes Orquestinak Irurtzunen, gaztelaniaz, alemanez, ingelesez eta frantsesez abestuz. Guztia Art Decon inspiratutako estetikarekin.

Garai bateko alaitasuna, xamurtasuna, xarma eta exentrikotasuna oroitarazten duen musika ekarriko dute eskarmen-tu handiko musikariek, instrumentuen ezohiko konbinazioa osatuz: Jasmina Jolie (ahotsa, Kroazia), Scott A. Singer (akordeoia, AEB), Andrea Szamek (biolin-tronpeta, Hungaria) eta Miguel Angel Bestardek (Tuba, Mallorca).

bazterretik

Andoni Igoa

Gaudi

11 urte nituenean nire gurasoek Italia ezagutzeko bidaia batera eraman ninduten. Egun gutxitan ia herrialde guztia ikusteko aukera izan genuen: Pisa, Roma, Napoles, Pompeya, Venezia, Florentzia, Milan, Asis... Dakigunez, bertako herri gehienetan katedralak, elizak, jauregiak eta museoak ikus daitezke. Bidaia hartan eraikin ikusgarriak ezagutu genituen. Nikuste, arkitekto zaina han agertu zitzaizkida. Egia esan, hainbeste eliz ikusi ondoren ibilaldiaren amaierara nahiko nekata ailegatu ginen, ikusten genuena nahikoa baloratu gabe. Bidaia bukatzeko Bartzelonan egin genuen gaua. Hemen gurasoek

Gaudiaren "Sagrada Familia" ikustera gerturatu ninduten. Amak beti, eraikin hura ikusita, txundituta gelditu nintzela gogoarazten dit. Italia guztia ikusi ondoren, eliz ederrera Bartzelonan zegoela konturatu nintzen. Hauerabat desberdina baitzen, Disneyko marrazkietatik ateratakoa zirudien. Orduz geroztik, arkitekto ameslari hau zertxobait ikertzeko aukera izan dut. Antonio Gaudiaren jaioterria ez da inoiz zehazki jakin, baina adituek diote 1852an Reusen jaio zela. Bartzelonan ikasi zuen arkitekturabaina, dirudienez, karreraren zehar ez zuen arrakastarik izan notei dagokienez. Agian bere ikusmena, irakasleena baino urrunago zihonan eta haiek ez zuten bere ikus-

puntua ulertzeko gaitasunik.

Bere obra kopurua oso mugatua da, eta gehienak Katalunian eginikoak dira. Arkitekto honek eraikin osoa diseinatzen zuen, egituratik hasita, ateen pometaraino, eta dena naturarekin lotua egon beharko zen. Adibidez: jeinuak, zutabeak itxuraz medartuegiten zituen, baina, aldi berean, harrizko fruitu edo beste edozein adornuekin sendotu. Nahiz eta bere obra guztia interesgarria izan, garrantzitsuenak Bartzelonako Milla etxea, Batllo etxea eta Güel parkea direla esango nuke, eta noski, bere obra maisua, oraindik bukatu gabe dagoen "Sagrada Familia" eliza. Azken hau Eiffel dorrearen atzetik, munduan bisitatuena dena erakina dela esaten da.



Artieda eta Karasatorre bertsolariak Mariano Izeta sariketan

Gaur, 21:30ean Arbizuko Argibidea elkartearen bertso sariketako kanporaketa jokatu dute sei bertsolari gaztek

Bi urtetik behin jokatzeko den Mariano Izeta bertso sariketako seigarren edizioa du aurrean. Eta inoizko parte hartze kopuru handiena ere badu: 18. Guztiak gaur jokatu diren hiru kanporaketetan ariko dira. Haien artean bi bertsolari etxarriar daude: Unai Artieda eta Saats Karasatorre. Haiekin batera gaurko Arbizuko bertso merenduan Ioar Tainta (Lesaka), Joanes Ilarregi (Leitza), Amaia Elizagoin (Oronoz) eta Kotte Plaza (Irurita) ariko dira. Hiru kanporaketatik bi onenak pasako dira hilaren 21ean Elizondon jokatu den finalera. Hura 2006an Oier Lakun-



tza urdiaindarrak irabazi zuen.

Nafarroako Bertsozale Elkarteak urtero antolatzen dituen ekimenen artean txandakatzen diren Izeta sariketa eta Xalto sariketa daude. Bien helburu nagusia Nafarroako bertsolari gazte edo hasiberriek kantatzeko aukera ematea da, haien bertsogintza ezagutzeko eta gerora baliagarri izanen zaien esperientzia har dezaten. Izeta sariketa antolatzen ez den

urteotan Xalto sariketa jokatzeko da, beti ere, Nafarroako etorkizuneko bertsolaritzari oinarria jartzeko. Sariketarako Mariano Izeta zenaren izena hartzen du, elizondoarrak herri kultura eta, bereziki, bertsolaritzaren alde egindako lan handia eskertzeko.

Finala

Azaroaren 21ean, 21:00etan, egingen den afari baten ondoren jokatu da sariketako finala, Baztango Errugbi Taldearen elkartearen. Sarrerak 15 eurotan eskuratu daitezke Nafarroako Bertsozale Elkartearen (nafarroa@bertsozale.eus edo 948143747 telefonoan).



Nonerabili

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ
Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ
2X1 progresiboetan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU
Lehenengo matrikula doan.

GOROSTI

ALTSASU
30 €tik gorako erosketetan % 10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

LA CIGÜEÑA

ALTSASU
60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

IZARA

ALTSASU
%10eko deskontua etxeko jantzi eta osagarrietan eta % 5eko deskontua gortina eta enkarguetan (eskaintza ez metagarria).

TXIKITXO

ALTSASU
60€tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabilteko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU
www.namastecentro.es-en galdetu eskaintzen berri.

TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU
60€ko erosketetatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI
30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai

Haurrak ilustratzaile

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak abenduaren 19rako, ostirala, 17:00etan ilustrazio tailerra antolatu du. Izen ematea abenduaren 16ra arte dago zabalik, Altsasuk iortia kultur gunera jo: 948 564 272 edo iortia@altsasu.net

Irudiak eta testua biltzen dituen publikazioa da album ilustratua. Eta horietako bat sortzeko gonbitea luzatu die Mank-eko Euskara Zerbitzuak Sakanako 6

eta 10 urte bitarteko haurrei. Txikiak Aitziber Alonso ilustratzailearekin eta Yolanda Arrieta idazlearekin ariko dira, album bat nola egiten den frogatzeko. Hitza eta irudia elkartuko dute denen artean eta egindakoaren zatitxo bat bakoitzak bere etxera eramateko aukera izanen dute. Haurrak albumetara gerturatzeko asmoz antolatu du Mank-ek tailerra, Etxeparesariaren egitasmoaren barruan.



Musika ikasleen emanaldia

Bihar, larunbatean, 19:00etan Izurdiagako Joan Bataiatzailea elizan

Irurtzun eta Arakilgo musika eskolako ikasleek bihar kontzertua eskainiko dute Izurdiagan. Musika modernoa, klasikoa eta folklore doinuak eskainiko dituzte. Irurtzun eta Arakilgo musika eskolako ikasleek osatutako abesbatza ariko da. Eta haiekin batera gitarra-joleak, trikitilariak, klarinete-joleak, txistulariak eta flauta-joleak ere.

Katamalak

Plateruena Kafe Antzokian emandako agur kontzertua zuzenean!

Plateruena aldea **Katamalak** egindako lana. 8€an eskuragai gurean.



www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 80%	euria: 23%	euria: 40%	euria: 78%	euria: 35%	euria: 25%	euria: 20%
Min: 10 Max: 13	Min: 6 Max: 13	Min: 6 Max: 11	Min: 6 Max: 11	Min: 4 Max: 11	Min: 6 Max: 13	Min: 8 Max: 13

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	16.5	2	5.3
Etxarri A.	15.5	-0.9	5.8
Altsasu	12.5	0	15.6
Aralar	7.9	0.9	6.4
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
14	22	29	6

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Azaroko bazkide zozketa

AZAROKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gazte zulo aldizkarian 3 hilabete harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu bala eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
2. Artazako kanpinerako deskontu bala, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gazte zulo aldizkarian 3 hilabete harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
3. Artazako kanpinerako deskontu bala, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gazte zulo aldizkarian 3 hilabete harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
4. Artazako kanpinerako deskontu bala, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gazte zulo aldizkarian 3 hilabete harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

>> 11 galdera

Nuria eta Cristina

Amalur, artisa material didaktikoa

Testua: Maialen Huarte Arano



1. Material didaktikoa sortzen duzue.

Montessorik sortutako hezkuntza materiala da prestatzen duguna. Hezkuntza materiala da. Materiala, edozein hezkuntza zentrotan erabiltzen dena izan daiteke baina sortzen ari garen eskolan erabiltzen dugun modua berezia da. Materiala sentsoriala da eta bereziki matematikak ikasteko baliabidea. Haurrek, euren zentzumenak landuz, arloak ikasteko aukera dagoela argi erakusten dutenak.

2. Beste modu batean lantzen dira zuen eskolan ohiko ikastetxe batean irakats daitezkeen arloak?

Hala da, haurrek beste modu batean bereganatzen dituzte ikasi beharreko horiek. Montessorik erabiltzen zuen metodoa da guk jarraitzen duguna. Horretarako material didaktikoa sortu dugu hain zuzen, egurrezko materiala da gehiengo eta horiek lantzen, material hori ezagutzen lortzen dute ikasleek arlo desberdinak bereganatzea. Materiala barneratu eta nola erabiltzen den ikasten dute. Hortik aurrera haurrak dira, euren irudimenaren bitartez, jakintzak bereganatzen dituztenak.

3. Eskola hori, nolakoa da?

Espazio bat prestatu dugu, leku bat prestatu dugu baldintza guztiekin haurrek beraien kabuz ikasteko. Bidea eurek gidatzen dute.

4. Abian da eskola.

Eskola txikia sortu dugu bai. Material didaktikoarekin ekin diogu bideari. Hunkigarria da ikustea, baldintza guztiak beteta eta euren beharrik ase izanda beste modu

batean ikasteko aukera dagoela.

5. Zenbat haur daude?

Hiru familia ari gara lanean eta uneotan hiru haur daude eskolan.

6. Haurrak nork gidatzen ditu?

Ama bat da gida lana egiten duena, hezkuntza arloan eta pedagogian aditua den ama. Haur bakoitzak material horren aurrean zein jokabide duen ikuskatzen duena, obserbazioaren bidez lortzen du jakitea haur bakoitzak zein motibazio duen eta zer nola ikasten duen arlo bakoitza barneratzen. Haur bakoitzaren prozesua ikusi eta haurraren behararen arabera antolatzen dugu espazioa eta materiala.

7. Finantziak nola lortu duzue?

Amalur elkarteak, gure proiektuaren adar bat da, material didaktikoa sortu eta saltzeko bide ematen diguna. Horrela lortuko dugu ekonomikoki autonomia. Iniziatiba pribatua da, horrelako esperientziak garestiak dira, baina indarra badu, beste familia batzuk sartu daitezke eta horrela ekonomikoki erraztasun handiagoa genuke aurrera egiteko.

8. Zergatik egin duzue eskola hori sortzearen aldeko hautua?

Ohiko hezkuntza sisteman hutsuneak sumatzen ditugu. Ohiko ikastetxe horietan, hezkuntza formalean, irakasle eta langile egoiki asko dago, baina, sistema ezarritako dagoen moduan zalantza sortzen dizkigu zenbait arlotan. Zenbait behar ezin ase dabilta eta aldaketa badatorren arren, gure haurrak beste modu batean hezi

nahi ditugu. Beharra orain dugu, eta halako proiektuarekin ekiten beharrezko iruditzen zitzagun.

9. Nola lantzen duzue arlo bakoitza?

Haurren artean dinamika berezia sortzen da. Aldi berean hiru prozesu sortzen dira, haur bakoitzeko bat, gure kasuan. Haurra material batekin tematzen bada, bestea zertan ari den jakin nahi izaten du eta, hortaz, arlo guztiak lantzea ez da zailtasuna. Ezagutzarekiko grina sortzen zaie. Matematikak esaterako, unitatea sentituzetik abiatzen da, zentzumenaren bitartez lantzen. Handiagoa, luzeagoa, zabalagoa den materiala ikusi eta behin hortaz ohartuta, matematikak bere bidea hartzen du. Ikasteko grina haziz doa, behin gauza bat bereganatuta beste bat ikasteko gogoia izaten dute.

10. Zein hizkuntzatan ikasten dute haurrek?

Gure helburua euskara ikasten dutela ziurtatzea da. Beti, amaren hizkuntza errespetatzen dugu. Bi hizkuntzatan trebatzea da erronka: euskaraz eta gaztelaniaz. Hirugarren hizkuntza txertatzeko ahalmenik ez dugu gaur gaurkoz, baina aurrera begira bada asmorik horretarako ere.

11. Eskola handitzeko asmorik baduzue?

Datorren ikasturtean, proiektua finkatzearekin batera, 14 haur izatea da erronka. Edozein familiar irekita gaude. Proiektua hezkuntza departamentuan dago, errekonozimendua nahi dugulako baina ikusiko dugu nola kudeatu dezakegun.

2015eko egutegi pertsonalizatuen eskaintza

horma egutegiak

Posterra pertsonalizatua, kolorez. Kontsultatu neurriak. Faldoia elebiduna, bi koloretan. Hilabeteak ilargiekin.

poster egutegiak

Diseinu pertsonalizatua. Ekonomikoa. Kolorez. Paper lodian. Kontsultatu neurriak.

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

Bierrieko bazkideentzat %5eko deskontua

948 564 275 argi@guaixe.net